

+



Paperezko egutegiek badute tokia oraindik

Daniel Soler irakasleari elkarrizketa



SANTAMASAK BETE-BETEAN, GABONEN ATARIAN

Urteko azken azoka ohi bezala ospatu dute ehunka lagunek Arrasaten; feria, dantzak eta jai-giroa nagusi izan dira kalean / 8

Hainbat herritar Arrasateko Herriko Plazan, txerri dantzak ikusten, atzo eguerdian.

XABIER URZELAI

GABONAK
Honako egun hauetan jasoko dituzue hurrengo aldizkariak:
'2022 urtekaria': 30ean.
GOIENA: urtarrilaren 5ean.
'Puntua': urtarrilaren 5ean.

Ondo ibili!

SINADURAK

	JOXEMARI MUXIKA ARRIETA / 6		JONMIKEL INTSAUSTI / 28
	MARKEL ARRIOLABENGOA / 13		ANDER ETXEBERRIA / 40

SKODA ENYAQ IV



DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 35 • ARRASATE • 943 71 18 70



Hemen garbiketak

Inoiz baino garrantzitsuagoa

ZURE KONFIANTZAKO GARBIKETA ENPRESA

ESKORIATZA
T.- 943 71 48 45
www.hemen-garbiketak.com
hemen@hemen-garbiketak.com



Joan den egubakoitzean, hilaren 16an, egin zuen Ulma Taldeak ezohiko batzarra, Illunben, Donostian. GOIENA

Katea eten arren, Ulmak lankidetzan du jarria arreta

Mondragonetik irteteko erabakia hartu du Ulmak. Bazkideen arabera, "esperotakoa" izan da emaitza, eta Diaz de Gereñuk lankidetzarako prestutasuna azaldu du. Orain, korporazioarekin bilerak abiatu beharko dituzte, baita zein lotura izan erabaki ere

Amaia Ramirez de Okariz
Kortabarria DEBAGOIENA

Hartua dago erabakia. Lan-bazkideekin ezohiko batzarra egin ostean, Mondragon Korporaziotik irteteko hautua egin zuen joan den egubakoitzean Ulma Taldeak. Illunben egin zuten bilkura, Donostian. 2.789 lan-bazkidek izan zuten botoa emateko aukera, eta bozkatu zutenen artean %80,52k egin zuten irritearen alde. Alabaina, ez da jakinekua zenbatek eman zuten botoa, Ulmak ez baitu informa-

zio hori eman. Taldea osatzen duten bederatzi kooperatibetako kideek egin zuten, ordea, erabaki berberaren alde.

Dena den, bilkura amaitu berrikan, emaitzaren gaineko lehen balorazioa egin zuen Lander

DIAZ DE GEREÑUK AZALDU DU LAN BAZKIDEEN "AGINDU ARGIA" JASO DUTELA ORGANOEK

Diaz de Gereñuk, Ulma Taldeko lehendakariak. Haren arabera, "agindu argia" jaso dute kooperatiba osatzen duten organoek, lan-bazkideek eurek hartutako erabakia izan dela nabarmenduta. "Bazkideek erabakitzen dute, beren botoaren bidez, zer bide jarraitzen duen kooperatibak".

Haren arabera, "euskal kooperatibaren arrakastaren ereduaren parte" dira, eta argi du aurrerantzean ere beraren balioak defendatzen jarraituko

dutela, baina horretarako funtsezkotzat jotzen du Ulma "industria talde kooperatibo indartsua" bihurtzea. Uste du hori dela hori erdiesteko modua.

"Esperotako" emaitza

Diaz de Gereñuk ez ezik, Illunben izan ziren lan-bazkideetako batzuek ere euren iritzia eman zuten bilera amaitez. Azaldu zuten, "esperotakoa" izan da emaitza, baina, hala ere, aitortu zuten ez zutela horrelako alderik espero ezetzaren eta baietzaren artean. Izan ere, bozkatu zutenen artean, hamarretik zortzik egin zuten alde, eta, beraz, bik, kontra.

Alabaina, erabakia errespetatu beharrekoa dela uste dute. "Nik ez nuen hainbesteko alderik espero, eta ezta ingurukoek-eta, baina hartu da erabakia", azaldu zuen batzarrerak joandako lan-bazkideetako batek. Haren ustez, erabakia guztiak hartutakoa da, eta, hala, horrekin egin behar da aurrera, onartuta. Eta ados dago beste hau ere: "Bazkideek hartu dute, eta errespetatu egin behar da. Gure egunerokoan, gainera, ez du eraginik izango, berdin jarraituko dugulako". Gainera, gogorarazi du Ulma Taldea aurrez ere egona dela Mondragonetik kanpo, eta, beraz, ez duela uste "traumatikoa" izango denik aldaketa.

Hogei urte egin baititu kooperatibak Mondragonen. Korporazioaren antolaketa egituraren sartzeko aukera izan zuen 1990eko hamarkadaren hasieran, baina, kooperatiba talde propioa edukitzeko erabakiaren ondorioz, ezezkoaren alde egin zuen orduko hartan. Hala ere, 2002an batzeko hautua egin zuen, taldearen bereizgarritasunein eusteko baldintzarekin. 5.000 langile baino gehiago ditu eta 900 milioi euro baino gehiago fakturatzen ditu.

Elkarlanerako prest dago

Norbere bidean jarrita dauden arren, Ulmak ez dio lankidetzari uko egin nahi, eta, Mondragonen baja eman arren, "horren ondoriozko akordioak adostea" du helburu aurrerantzean. Ale-

ULMAREN ERABAKIA ERRESPETATZEN DU MONDRAGONEK, ETA INTERKOOPERAZIOA DU OINARRIETAKO BAT

gia: "Guztiok ordezkatzen dugun arrakasta-ereduaren onerako diren ekintza guztietarako elkarrekin lan egiteko prest gaudela".

Korporazioak, baina, ez du horri loturikorik argitu. Ohar batean azaldu du kooperatibak hartutako erabakia errespetatzen jarraitzen duela. Baita Orona taldearena ere, Ulmaren egun berean onartu baitzuten bozketan parte hartu zuten lan-bazkideen %71,9k Mondragonetik irtetea. "Mondragonek berretsi egiten du bi kooperatiben erabakia erabat errespetatzen dituela; eta, gainera, haien enpresa-proiektuek eta eredu kooperatiboak etorkizunari begira bilakaera positiboa izan dezaten nahi du".

"Ilusio-mezu bat" ere helarazi du Mondragonek, haren negozioek "bilakaera positiboa" dutela ere gaineratuta. Adierazi duenez, gaur egun lantzen ari diren egitasmoak eta Mondragonen eredu kooperatiboa bera "egokiak dira merkatuen erronkei aurre egiteko eta gizarte kohesionatuagoak eta iraunkorreragoak" eraikitzeko.

Hala ere, oharrean argi diote "etapa berri batean" daudela, eta bide horretan "interkooperazioan eta elkartasun balioetan" jarriko dutela arreta, horrek zenbait bide zabaltzea ahalbideratuko lukeela nabarmenduta. "Ezaugarri horiei esker, kooperatibek, modu erabat autonomoan eta librean, beren enpresa proiektuak zabaltu ahal izan baitituzte, eta, zailtasun egoerak igaroz gero, multzoaren elkartasuna izan".

Hurrengo pausok

Etorkizunaz aritzeko, baina, orain Mondragonekin bilerak abiatu beharko dira, norbere bidean egon arren, lankidetzan jarraitu nahi baitu Ulmak. Erretiratzea adostu behar da lehendabizi, eta korporazioarekin nola jokatu eta zein lotura izan ondoren, Oñatiko kooperatibak Mondragonen proiektua garatzen jarraitu nahi baitu.

Lotura horiek, beraz, zehazteko daude. Iñigo Uzin Mondragoneko lehendakariak, ordea, aurrez esana du lankidetzaz ez dela orain artekoaren parekoa izango, baina Ulmak argi du itun horietako batzuk ez dituela aldatuko; esate baterako, Lagun Arorena.

Eneko Azkarate Laspiur OÑATI

Ulmako lan-bazkide izan da ia sorreratik, 1965tik. Zuzendaritza postuetan aritu da, batik bat. 1984an Ulma Eraikuntzetako zuzendari nagusi izendatu zuten, 2001era arte, Ulma Taldeko presidente kargua hartu zuenera arte. Horretaz gain, Oñatiko Enpresa Zientzien Eskolaren (ETEO) –gaur egun Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultatea dena– sortzaile izan zen. 2007an hartu zuen erretiroa. **Ulma Taldeko lan-bazkideek aurreko ostiralean erabaki zuten Korporaziotik irtetea. Boto-emaileen %80k egin zuten aukera horren alde. Espero zenuen emaitza?**

Nik neuk zalantzak nituen botoa emateko orduan, baina azken egunetan izan genituen informazio-batzarren ondoren sumatu nuen gure kooperatibetan Korporazioa uzteko jarrera argia.

Ados zaude erabakiarekin?

Uste dut talde kooperatibo bateko kide izateak abantailak dituela, gure kooperatiba baikoitzari Ulma Taldean parte hartzeak ematen dion bezala. Korporazioko kide izateak, nire ustez, abantailak ekarri beharko lituzke, baldin eta behar bezala funtzionatzen badu.

Erabaki hori ona izango da Ulma Taldearendako?

Denborak esango du. Etorkizuneari egingo diren urratsen arabera izango da. Pertsonalki, berriro diot: hobe da korporazio bateko kide izatea, segurtasun handiagoa ematen dio kooperatibari, baina korporazioak behar bezala funtzionatzen ez badu, kontrakoa gerta daiteke. Korporazioan sartzeko aukera egon zen aurreko aldian, Ulma Taldea ez zen Mondragon Korporazioan sartu. Orduan, arrazoiak ez ziren gaur egungoak. Orduan, hartutako erabakiarekin, etorkizuneko apustu serioa egin zuen Ulma Taldeak, eta esan dezaket apustu hori oso ondo atera zitzaioela, nire ustez.

Eta Mondragon Korporazioarendako?

Korporazio batean, hasiera batean, ez dut uste berri ona denik parte-hartzaile baten edo batzuen baja. Horregatik, uste dut Mondragon Korporazioak hausnarketa egin beharko lukeela baja horien zergatiaren inguruan. **Mondragon Korporazioari atxikitako kooperatiba izan beharrean, hitzarmen bidezko harremana izate**

"Ulma eta Mondragon ondo konpontzea gurako nuke"

JOSE LUIS MADINAGOITIA ULMA TALDEKO PRESIDENTE IZANDAKOA

Ulma Eraikuntzetako gerente eta Ulma Taldeko presidente izandakoak modu aktiboan, gertutik, jarraitu du Ulma Taldea Mondragon Korporaziotik irteteko prozesua



Jose Luis Madinagoitia, Oñatin, atzo goizean. ENEKO AZKARATE LASPIUR

tea gura izan du Ulma Taldeak. Posible da hori?

Aukerak beti daude, adostasunetara heltzeko alde biek alboratu utzi nahi dutenaren arabera, baina onartzen dut zailtasunak badituela. Edozelan ere, uste dut prozesu honetan huts egin duela bi aldeek negoziatzeko izan duten jarrera eskasak. Nire ustez, behar den denbora hartu behar zen eta barne-akordioetara iristeko ahaleginak egin. **Zelako harremana izango dute etorkizuneari Ulma Taldeak eta**

Mondragon Korporazioak? Nola irudikatzen duzu harreman hori?

Ahalik eta lasterren, uste dut biek eseri behar dutela hitz egitera, aztertzeke zerk batzen dituen eta noraino hel daitezkeen bien arteko lankidetzak. Albora lagata liskar pertsonalak, ziur bainago badaudela. Ulmak eta Mondragonek harreman estua izatea gustatuko litzaidake. **Zelako etorkizuna ikusten diozu Ulma Taldeari?**

Gaur egun, Ulma Taldea ikusten dut etorkizuneko ikuspegi ona-

rekin enpresa-garapenari dago-kionez. Abantaila bat badauka Ulmak: ez dago sektore ekonomiko bakar baten menpe. Horregatik, sektore bateko krisiaren eragina txikiagoa izango da. Hala ere, ekonomiaren bilakaera oso gertutik jarraitu behar da, egoera berriak asko zainduz eta neurri zuzentzaileak garaituz.

2002an Ulma Taldea Mondragon Korporazioan sartu zenean zu zuzen Ulma Taldeko presidente. Zergatik erabaki zenuten Korporazioan sartzeko?

Ulma Taldeko lehendakaria nintzen Ulma Taldea 2002. urtean Korporazioan sartu zenean, eta, era berean, presidentea nintzen, urte batzuk lehenago Mondragon Korporazioa sortu zenean, proiektu berriaren ez sartzeko erabakia hartu zenean. Izan ere, orduan, kooperatibak eskualdeka edo geografikoki antolatzen talde sektorialetan antolatzen pasatu zen. Orduan, Ulma Taldeak Mondragon Korporazioari aurkeztu zion Ulma Talde moduan sartzeko aukera, baina Korporazioak ez zuen proposamen hura onartu. Gero, Korporazioan sartzeko negoziazioak hasi genituen eta Korporazioak Ulmari talde moduan sartzeko aukera eskaini zionean, aztertu genuen Korporazioan sartzeko aukera eta onartu egin genuen. Korporazioa sortu zenean, 1992ko prozesuan, gertu geunden talde moduan

sartzeko, baina gure planteamendua ez zen onartu.

2002tik hona, Ulmari onurak ekarri dizkio Korporazioan sartuta egoteak?

Jarraitzen dut pentsatzen behar bezala funtzionatzen duen korporazio bateko kide izateak kide guztiei egiten diela mesede, baina azpimarratu gura dut ezinbestekoa dela behar bezala funtzionatzea.

Kaltea edo desabantailak gehiago izan dira?

Azkenaldi honetan, Korporazioan egoteak ez dut uste onura handirik ekarri duenik; batez ere, sortu den zurrumbilo mediatikoarengatik.

Nahikoa azalpen jaso duzue lan-bazkideok?

Ulma Taldea, batzar informetiboaren bidez, egoera honetara iristeko arrazoiak ematen saiatu da bere kolektiboari. Informazioa alde bakarretik iritsi izanak, akaso, hankamotz utzi du egoeraren analisi osoa egiteko aukera. Baina Korporazioa ere saiatu da informazioa komunikabideen bidez helarazten, eta azken egunera arte egin du.

Modu aktiboan jarraitu duzue prozesua?

Bazkide ez-aktibo gisa jarraitu dut prozesua, eta informazio-hitzaldietan parte hartu dut gonbidatu nautenean, eta, bai, modu aktiboan parte hartu dut, beharrezko jo dudanean.

Ulmak jarraituko du Mondragon Unibertsitatea babesten?

Babesten jarraitu beharko lukeela uste dut. MU oso proiektu interesgarria eta garrantzitsua dela uste dut. Nire bizitza osoa haren parte izan da, bai sorreran, bai garapenean. Ziur nago, hala esan baitu joan zen asteko batzar nagusian bertan, Ulma Taldeak MU laguntzen jarraituko duela.

"MONDRAGONEK HAUSNARKETA EGIN BEHARKO LUKE BAJA HORIEN ZERGATIAREN INGURUAN"

"KORPORAZIOKO KIDE IZATEAK ABANTAILAK EKARRI BEHARKO LITUZKE, GAUZAK ONDO EGINDA"



Pertsona Migratzaileen Nazioarteko Eguna ospatu zuten Aretxabaletan domekan. I.S.

Debagoieneko biztanleen %7,1 atzerritarak dira

Debagoiengan espainiar nazionalitatea ez dutenen artean amerikarrak dira gehienago eta ondoren jarraitzen diete, Afrika, Europa, Asia eta Ozeanitik datozenek; bailaran, Arrasaten kokatzen da espainiar nazionalitatea ez dutenen kolektibo nagusia

Idoia Aranbarri Arzuaga DEBAGOIENA Euskal Autonomia Erkidegoan 186.630 pertsonak dute espainiar nazionalitatea ez den besteren bat; hau da, biztanleria osoaren %8,5ek, 2022ko urtarrilaren leian, Eustatek emandako datuen arabera. Bailarako kasuan, 63.956 biztanletik 4.530 pertsona dira espainiar nazionalitatea ez dutenak; hain justu, %7,1, Gipuzkoako ehunekoak baino %1,5 gutxiago. %0,25 igo da 2021eko datuekin alderatuta, EAEko biztanleria osoa kontuan izanda.

Nazionalitatea kontuan hartuta EAEra etortzen direnek zein kontinentetako nazionalitatea duten ere aztertu du Eustatek. Gipuzkoaren kasuan, Amerikako herrialdeetakoak dira gehienak; hain zuzen ere %39,3. Europako beste herrialde batzuetako nazionalitatea izan eta Gipuzkoan bizi direnak %28,2 dira. Talde horretan, Errumaniatik etorri diren etorkin nabarmendu ditu Eustatek.

Ondoren, afrikarrak kokatzen dira: %24. Azken lekuan, Asiako eta Ozeaniako nazionalitatea duten pertsonak daude; bertan bizi diren atzerritarren %8,5: "Azpimarratzekoa da presente dauden ia herrialde bakarrak Txina eta Pakistan direla". Antzerako datuak ditu Bizkaiak, baina Araban, Afrikako nazionalitatea dutenak dira bertan bizi diren atzerritarren arteko kolektibo nagusia eta bigarren talderik garrantzitsua amerikarrena da.

Debagoiengan ere, Gipuzkoan bezala, amerikarrak dira gehienago atzerritar nazionalitatea dutenen artean: %41,19; baina gero, hurrenez hurren jarraitzen diote Afrikak, Europak eta Asiak

BAILARAN, ARRASATE AUKERATZEN DU ESPAINIAR NAZIONALITATEA EZ DUEN GEHIENGOAK

eta Ozeaniak: %28,48, %16,91 eta %13,42.

Hala ere, herriz herri begiratu gero, Eskoriatzak ez ditu Gipuzkoako eta bailarako tendentziak jarraitzen; izan ere, atzerritar gehienek nazionalitate europarra daukate, bigarrena afrikarra da eta hirugarrena, amerikarra. Aramaion eta Antzuolan, berriz, Afrikako nazionalitatea duten pertsonen kopurua da nagusi, eta bigarrenak amerikarrak dira.

Arrasate eta Bergara helmuga Ibarrean espainiar nazionalitatea ez dutenen artean, Arrasate aukeratzen dute gehienek, %39,32k, Euskal Estatistika Erakundeak argitaratutako datuen arabera. Halaber, Bergara eta Oñati daude bigarren eta hirugarren postuan –%24,79 eta %16,18, hurrenez hurren–. Ondoren, jarraian datoz Aretxabaleta, Eskoriatza, Antzuola, Elgeta, Aramaio eta Leintz Gatzaga.



Mikel Orobengoa, ISEA kooperatibako zuzendaria, eguaztenean, Goienan. I.A.A.

"Enpresek aurrera egiteko gai izango direla aurreikusten dute"

2023ko ekitaldiaren aurrean euskal enpresek dituzten perspektibei buruzko ikerketa egin dute hiru erakundek

I.A.A. DEBAGOIENA

Mondragon Unibertsitateak eta MIKeko Enpresagintza Fakultateak, LKS NEXTek eta ISEAk 2023ko ekitaldiaren aurrean euskal enpresek dituzten perspektibei buruzko azterketa egin dute. Enpresak nola dauden kokatuta, dituzten ardurak eta ze arazo aurreikusten dituzten jaso dituzte; ondoren, arazo eta erronka horiek gainditzeko. 120 enpresak hartu dute parte ikerlanean; tartean, industriako eta zerbitzu mundukoak.

Mikel Orobengoa ISEA kooperatibako zuzendaria da, eta, azaldu duenez, enpresen %85k aipatzen dute inbertsioak eta langileria mantendu edota handituko dituztela, eta berri hori "pozgarria" da: "Nahiz eta egoera konplexua izan, enpresek aurreikusten dute gai izango direla aurrera egiteko".

Kanpoko eta barneko faktoreak

Kanpoko faktoreak –hala nola prezio igoera, zalantzaszko merkatua eta lan-kostuen handitzea– "epe-motzeko kezka" direla dio, eta gehiago kezkatzen duela talentu eskasiak; izan ere, enpresek geroz eta pertsonal trebatuagoa behar dute, jende gaztea: "Biztanleria geroz eta zaharragoa da; beraz, datozen urteetako erronka da jende trebatua eta adimentsua aurkitzea".

Orobengoaren esanetan, egingadako ikerketak "argi utzi du" azken urteetan euskal enpresen barne-ekintzailatasuna "oso pobrea" dela. Azterketan agertzen

da enpresen %11k dituztela barne-ekintzailatasuna aurrera eramateko dinamikak edo ekimenak, eta ISEAk zuzendariak azpimarratu du horrek esan nahi duela enpresak geroz eta zaharragoak direla eta ez dituztela berritatzeko negozio ereduak nahiz produktuak, eta hori ere kezagarritzat definitu du, etorkizunera begira lehiakortasuna galdu baitezakete.

Jakin-min Erkidegoa

Ikerketa horretan, kudeaketa arloan langabezia handia dagoe la ikusi dute eta sail horretan ahulak direla, enpresak ez baitaude trebatuta arlo horretan. Horri aurre egiteko sortu zuten, duela sei hilabete, Jakin-min Erkidegoa azterketa egin duten hiru erakundeek. Helburuen artean daude ikerketa sustatzea, lehiakortasunak duen garrantzia sustatzea, eremu berritzaileetan saiakerak egitea eta jardunbide aurreratuak hedatzea eta partekatzea.

Erkidego irekia da eta edozein enpresa eta pertsonari egin diote gonbita bertan parte hartzeko. Hain zuzen ere, *kudeaketa@mondragon.edu* helbide elektronikora idatzita jarri daiteke harremanetan eurekin.

OROBENGOAK DIO IKERKETAK ARGI UTZI DUELA BARNE- EKINTZAILITASUNA "OSO POBREA" DELA

Kontseilu Sozialistak Etxebizitza Sindikatua jarri du martxan

Deba Bailarako Kontseilu Sozialistak Etxebizitzarekin lotutako arazoak dituztenei laguntzeko

Maidar Arregi ARRASATE

Iaz Debabarrenan martxan jarri zuten Etxebizitza Asanbladaren jarraipena da Sindikatua. Deba Bailarako Kontseilu Sozialistatik diote egun bizi den egoeran langile klasearentzat eguneroko arazoa dela etxebizitza, eta presioak, mehatxuak, prezioen igoera arbitrarioak eta etxebizitzaren kalitatea jaistea jartzen dituzte horren adibide gisa.

Hala, Etxebizitza Sindikatua-ren baitan hainbat ekimen aurreikusten dituzte. "Hasieran, asanblada sortuko dugu eta bertan landuko dira etxebizitzari dagozkion esparru eta kezak. Aurrerago, aholkularitza juridikoa ere eskaintzea da asmoa. Aldarrikatzen dugu doakoa, unibertsala eta kalitatezkoa den etxebizitza", azaldu du Deba Bailarako Kontseilu

Sozialistako kide Eneko Kortabarriak.

Etxebizitzarekin lotutako arazoak dituztenei laguntzeko helbide elektronikoa eta telefono zenbakia jarri ditu eskuragarri Deba Bailarako Kontseilu Sozialistak, baina kideek adierazi dute etorkizunean baliabide gehiago jartzeko asmoa dutela eurekin harremanetan jartzeko eta arazoei irtenbidea bilatzeko. Etxebizitza Sindikatuarekin harremanetan jartzeko helbide elektronikoa honako hau da: esindikatu.debabailara@gmail.com; eta telefono zenbakia, aldiz, hauxe: 653 53 40 98. Bestalde, mobilizazioak deitu dituzte abenduaren 30erako proletariotzaren aurkako ofentsiba salatzen eta autodefentsa sozialista aldarrikatzeko. Euskal Herriko hiriburuetan, 19:00etan hasita.

Coprecik nazioartekotasuna indartuko du Egipton 2023an

Aretxabaletako lantegiak hitzarmena sinatu du Egiptoko Fresh Electric, EBDA eta El Araby enpresekin

M.A. ARETXABALETA

Abenduaren 13an sinatu zuen akordioa Coprecik Egipton dituen Fresh Electric, EBDA eta El Araby tokiko bazkideekin. Akordio horren baitan, 7,6 milioi dolar inbertituko dituzte Egipton kokatuko den lehen lantegian, eta horri esker, gas bidezko sukaldeetarako 15 milioi segurtasun-balbula ekoiztuko dituzte.

Egiptok 105 milioi biztanle ditu gaur egun, eta urtean hiru milioi pertsonako hazkunde bizi du; industria modernizatzeko bidean aurrera egiten ari den

herrialde da, eta garapen horretan linea zuriko sektorea "lehen-tasuneko" dela nabarmendu du Aretxabaletako enpresak.

Hala, planta berria 2023ko apirilaren hasiko da seriean fabrikatzen. "Coprecik urte asko daramatza Egiptoko gas-sukaldeetarako lanean eta soluzioen erreferente izaten. Orain, tokiko bazkideen eskutik, beste urrats bat egin du herrialdeko etxetresna elektrikoaren sektoreko enpresek dituzten hazkunde eta arlo teknikoaren erronken bide-lagun izateko".



Lau enpresetako ordezkariak. COPRECI



Deba Bailarako Kontseilu Sozialistako kideak, Kulturaten, prentsaurrekoan. TXOMIN MADINA

Berdintasunaren bitartez ekiditen dugu desberdintasuna.

Desberdintasun gutxien dituen Europako lurraldeen artean jarraitu nahi dugu, horregatik, Gipuzkoako Foru Aldundia babestutako lanaren eta ekonomia sozialaren eredu propioa lantzen ari da, Etorkizuna Eraikiz ekimenaren bidez.

Gizarte politikak kudeatzeko modu berezia dugu. Eredu propio bat, gizarte eragileekin eta irabazi asmorik gabeko erakundeekin sinatutako hitzarmen eta akordioen bidez, gizarte bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen laneratzeko ibilbide pertsonalizatuak eskaintzeko lan egiten dugu.

Etorkizuna *Orain*.

etorkizuneraikiz.eus

PAULA ESTEVEZ



ZABALIK

JOXEMARI MUXIKA ARRIETA

Erabiltzen dena bizi da

Gaur egungo aitona-amonok ez genuen gazte garaian ikasketak euskaraz egiteko aukerarik izan. Seme-alaba askok bai, ordea, euskarazko hezkuntza edukitzeko modua, ondo kostata, antolatzea lortu baikenuen. Ondoren, bilobek ere euskaraz ikasteko aukera badute, baina badute aukerarik aisiaz euskaraz gozatzeko.

Pantailetak eskaintzak entretenimendu denbora asko hartzen duen aro honetan, medio horretako gehiena beste hizkuntza batzuetan garatua dago. Txiripaz agertzen da euskararik sareetan, tokiko telebistetan edo orokorretan; oso gutxi dago.

Eta lan eremuan ba al du lekuri euskarak? Edadetutako lagunen artean hainbat ikasketak frantsesetik bukatu eta aukera sortzean Euskal Herrira itzuli ziren lanera. Lan eremuan

EUSKARAZ ESKOLATU ARREN, LAN EREMUAN EZ DAGO EUSKARARENZAKO ESPAZIORIK

espainiera bakarrik erabili dute gehienek. Bakarren batek frantsesa baliatu zuen Europa aldeko beste enpresa batzuekin tratuan. Euskarak ez zuen eta ez du lan eremuan tokirik; atsedendian, akaso.

Funtzionamendu horrekin, 30 urte geroago frantsesa erabiltzeko herdoil handia nabari zitzaien, ez ziren gai elkarrizketa bat izateko. Oporretan Parisera Frantziako Tourra ikustera joan eta ezin jarraitu elkarrizketari hango hizkuntzan.

Ez da harritzekoa, laneko eremuan espainiera eta lagunekin eta familian euskara erabiltzen baitzuten.

Frantsesaz ari naiz, baina berdina gertatzen da euskararekin. Nahiz eta XXI. mendeko langileak euskaraz eskolatuak izan arren, lan eremuetan ez dago euskararentzako espaziorik, espainierak ia osorik bereganatzen baitu.

Euskaldunok gaurdaino euskarari eusten jakin dugu, baina jai dugu euskarazko lan eta aisialdi gabe. Lan eremuaren ez beste eremuen hizkuntza praktika ez da aldatuko euskaraz funtzionatzeko bitartekoak jarri eta erabilera adostu gabe.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



GUTUNAK

Eskerrik asko!

KARMELE LOPEZ ARECHAGA

BERGARA

Hilaren 10ean, larunbatean, Bergarako Uliazpi zentroan matxura bat gertatu zen eta, horren ondorioz, alarma jotzen hasi zen.

Ur asko atera zen, eta zegoen lurrun guztiak ez zuen matxura non zegoen ikusten uzten.

Berehala etorri ziren ertzainak eta suhiltzaileak, eta, matxura non zegoen aurkitu ondoren, ateratako ur guztia biltzen lagundu zidaten.

Ordubetez gelditu ere egin gabe aritu ziren lanean.

Hain zuzen ere, emandako laguntza guztiarengatik nire eskertza adierazi nahi diet lanean ibili ziren guztiei.

Eskertza

LEIRE LUGARIZARISTI
ARRASATEKO CARITAS ELKARTEKO
ARDURADUNEN IZENEAN
ARRASATE

Aurten ere Caritas elkartearen etxeetara gerturatu da zuen ekarpena, zuen parte-hartzea eta zuen interesa eskertzeko.

Badakizue mundu osoko Caritasek kolektiborik ahulenak eta baztertuak laguntzen dituela hainbat

proiekturen eta ekintzen bidez.

Itxaropenerako bidea beti dagoela deskubritzen laguntzeko, esperantza ekintza txikiek eta eguneroko ekintza xumeek osatzen dutela gogorarazteko eta pertsonen ilusio horien baitan dagoela oroitarazteko garaia da.

Horrenbestez, mila esker boluntarioei, bazkideei eta, era berean, dohaintzaren bat egin duzenoi.

Gabon zoriontsuak guztiondako; itxaropen, solidaritate eta eskertza garaiak izan daitezela. Urte berri on!

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzardea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.500 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

BERBAGAI

"Kontsumitzaile kontziente gero eta gehiago daude"

INTZA BARANDIARAN 'ZURE PLATEREAN HASTEN DA MUNDUA' EKIMENA

Larraitz Zeberio Lekuona ARRASATE

Landarlan Elkartek beste hainbat eragilerekin batera bultzatuta, herriz herri dabil *Zure platerean hasten da mundua* sentsibilizazio kanpaina. Debagoienara ere heldu da.

Kontsumo arduratsua bultzatzen duzue. Erosketa kontzienteagoa egin beharko genuke?

Pauso asko ditugu bide horretan emateko eta Landarlan Elkartek eta On Produktzioak-ek ekoiztutako dokumentalak mahai gainean jartzen ditu kontsumitzaile modura ze aukera ditugun.

Hiru ekoizlerekin eta kontsumitzaile batekin egin duzue dokumentala.

Tartean, Pikunieta baserriko Josebe Blancorekin eta familiarekin izan zarete. Zer moduz haien etxean?

Oso ondo, egia esan. Ezin hobeto. Plazera da atek zabalik hartzen zaituztenean. Ekoizleek, azkenean, kontsumo arduratsua bati begirako ekoizpen arduratsua



Intza Barandiaran. MAIDER ARREGI

batek zer dakarren adierazten dute.

Konturatzen gara non, nori eta zer erosten dugun?

Esango nuke gutxieneko kontzientzia bat denok daukagula. Denok dakigu

iraunkorragoa zer den. Baina, gero, eguneroko presak eta dugun bizimodu honek eramaten gaitu dena atzean utzi eta begiratu gabe kontsumitzera. Uste dut hor dagoela erronka. Pausatu eta

hausnarketatxo bat egiteko garaia da. Aldaketak ez dira egun batetik bestera egiten, baina kontzientzia hori hartuta asko egin dugu, eta egunerokotasunean aldaketa txikiak egitea ez da hain zaila. Alternatiba asko ditugu, eta egunetik egunera gehiago.

Poliki-poliki kontsumo eredu aldaketa batzuk gertatzen ari direla esango zenuke?

Bai. Azken urteetan ikusi dugu bestelako salerosketa-guneak ari direla sortzen, eta elikadura alternatiboaren aldeko apustua egiten ari direla hainbat eremutan. Kontsumo taldeez gain, hor daude kontsumo kooperatibak, kontsumo elkartek... Bestetik, esango nuke herri txikietako denda txiki asko apustua egiten ari direla; izan ere, ikusten dute badagoela aukera bat tokiko elikaduran. Pieza asko ari dira mugitzen, eta puzzle nahiko zabala ari da sortzen; betiere, herritarrei eskuragarri jartzeko tokiko produktua.

Azokak gehiago indartu beharko lirateke?

Gune oso interesgarriak dira. Salmenta-gune zuzena dira; ekoizlea eta herritarra elkartzen dira bertan. Horrek nekazariari ahalbidetzen dio bitartekaririk ez egotea eta

irabazien %100 etxean geratzea. Kontsumitzaileari dagokionez, ikusten da azokan egiten den erosketa ez dela esporadikoa. Kontsumitzailea, kasu horretan, nahiko fidela izaten da, eta horrek babesten du beste aldean dagoen nekazaritza proiektu hori.

Eta ekoizle gazteak kontsumitzaile gaztea erakartzen du? Hori horrela da?

Azokan ikusi dugu hori. Ekoizle gazteek erakartzen dute kontsumitzaile gaztearen profil hori. Azkenean, hartu-eman bat ere bilatzen da azokan. Baina esango nuke gaur egungo kooperatiba edo kontsumo elkartean ere lortzen dela bestelako kontsumitzaile profil batengana iristea. Eta da gazteagoa, konprometituagoa, erosketan kritikagoa, akaso... Esango nuke kontsumitzaile kontziente gero eta gehiago daudela.

Gabonetan asko kontsumitzen duzue; zure gomendioa?

Nik esango nuke zentzuz kontsumitzeko, eta tokikoa eta ekologikoa bada hobeto. Eta elikadura osasuntsua lotu behar dela gozamenarekin. Askotan, badirudi jasangarritasunaz ari garenean jaki deserosoetz ari garela, eta hori ez da horrela.

ITURRI ONETIK

Porrotxinen 15. urtebetetzea, Goiena telebistan

Porrotxinen 15. urtebetetzea ospatzeko jaialdi berezia antolatu du Txatxilipurdik urtarrilaren 3rako Arrasateko Amaia antzokian.

Porrotxekin, Porrotxinekin eta Arrasateko hainbat eragilerekin batera. 18:30ean hasiko da eta sarrerak salgai jarriko dituzte abenduaren 27an, 18:00etatik 20:00etara, eta abenduaren 28an, 11:00etatik 13:00etara, Biterin. Pertsona bakoitzak, gehienez, lau txartel erosi ahalko ditu. Goiena telebistak jaialdia oso-osorik jaso eta Errege Egunean emango du.

ALBISTE IZAN ZEN

2018-12-19

Euskal Herriko txistor onena, Oñatin egindakoa

Euskal Herriko 21. Txistor Lehiaketa jokatu zen Gabonen atarian Ordizian, eta Oñatiko Jesus Odriozola harategiak eraman zuen txapela. 42 ekoizle aurkeztu ziren eta epaimahaiak txistorraren itxura, osagaiak eta zaporea izan zituen kontuan produktu onena aukeratzeko. Biharamunean, Goienan, Odriozolak adierazi zuen ustekabea izan zela eta txistorra egiten duela harakin denetik: "Orain dela 30 urte, hain zuzen".



GOIENA

HAU BE BADOGU!

Bertsolari Txapelketa Nagusiaren tonuan

Domekan Iruñean jokatu zen Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalak askorako eman du. Munduko Futbol Txapelketarekin egin du bat. Zein mundialagoa?

@umoreaskea: "Leo, badakizu igandean milaka euskaldunek ez dutela zure finala ikusiko? - No es posible Maialen... - Katarsia eta gure finala Iruñean da!"

Kontseiluko idazkari nagusiak: @idurrecki: "#btn22 ko finalean sentitu nuen @kontseilua-tik esan nahi duguna ezin ederrago, ezin adierazkorrago eta ezin argiago esaten ari zirela bertsolariak".



Lehiaketako saridunek udal ordezkariekin ateratako argazkia. AITOR AGIRIANO ARRESE

Itzuli dira, izaera berreskuratuta

Nortasun propioa berreskuratu zuten santamasek atzo. Goizeko lehen orduetan, kaleei kosta egin zitzaizen bizitasuna hartzea, baina eguerdirako berotu egin zen giroa; ganadua, barazkiak, artisauen produktuak eta askotariko ekintzak izan ziren gozagai

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Herriko saltoki onenaren saria, 250 euro eta garaikurra, Itziar Egidazu okinak irabazi zuen; bigarren saria, 200 eurokoa, Naiara Uriartek; eta hirugarrena, 150 eurokoa, Gaizka Olabarrietak. Barazki lehiaketa, berriz, Asier Garaik irabazi zuen (Eskubaratz SZ), 250 euro eta garaikurra, eta Ane Gorosabelentzat izan zen bigarren saria, 200 eurokoa. Fruta lehiaketan ez zen parte-hartzailerik izan eta, beraz, ez zituzten banatu bi sariak. Azkenik, ogietan, aipamen berezia eta 150 euroko saria Ainara Abasolok eskuratu zuen (Irrika Gluten Free).

Hegazti gripea dela eta, ez zen hegaztirik egon azokan, baina ganaduak ikusmina sortu zuen, beste behin. Bereziki, Mikel Velasco artzain arrasatearrak egindako artile-mozketa erakus-

taldiak erakarri zuen jendea Arizmendiarrieta plazara. Era berean, Txerrinsky txerriak ere jendetza erakarri zuen, baita artisau azokak ere, 45 postu inguru batu baitziren Jokin Zaitegi plaza barruan zein kanpoan. Eguerdian, taloak erosteko ilara luzeak izan ziren, eta joaldunek, dantzariak, txistulariek, txalapartariak eta abarrek girotu zituzten kaleak.

Altunarena erakusleihu onena Bestalde, santamas bezperan egin zuten Gabonetako Erakusleihu Lehiaketaren sari bana-

**ITZIAR EGIDAZUK
JASO ZUEN SALTOKI
ONENAREN SARIA ETA
ASIER GARAİK,
BARAZKI ONENENA**

keta, eta Altuna lurrindegia-entzat izan zen sari nagusia, 1.000 eurokoa (Ikus *Goiena.eus*).

Hainbat ekitaldi geratzen dira Gaur, esaterako, Eskuar- tearen elkartearen artisau azoka egongo da Seber Altube plazan, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, baita bihar ere –goizean bakarrik–.

Bestalde, Jon Maiak *Kantubat gara* ikuskizuna egingo du gaur, Amaia antzokian, 19:30ean.

Bihar, zapatua, Txoronpia, Txoronpio eta galtzagorriak Olentzeroren gutunak jasotzen ariko dira goizean zein arratsaldean eta 18:15ean irtengo da Olentzero. Goikobaluk borobilduko du eguna, 19:00etan, Gabonetako emanaldiarekin.

Abenduaren 31n, Arrasate Musikaleko Bandak eta Txorbela Otxoteak itxiko dute 2022a.



Mikel Velasco artzain arrasatearra, ardiari ilea moztzen. IMANOL BELOKI UNAMUNO



Txerrinsky, Portaloian, herritarrez inguratuta. Ikusmin handia sortu zuen. I.B.U.



Herritar ugari ateratzen zituzten kalera jantzi tradizionalak. I.B.U.



Euskal pentatloi desafioa egin zuten Zaldibarren, berrikuntza modura. I.B.U.



Herriko dantza taldeetako dantzariak kalerik kale aritu ziren. XABIER URTZELAI ATXA



Fruta eta barazkien azokan askotariko produktuak egon ziren. XABIER URTZELAI ATXA



Altuna lurrindegia, Gabonetako Erakusleho Lehiaketako irabazlea. E.A.B.

2023ko udal aurrekontua onartu du udalbatzak

39.656.745 euroko aurrekontua da abenduko osoko bilkuran onartu dutena. Udal Gobernuak nabarmendu du "zuhurtziarekin, anbizioarekin eta erantzukizunarekin" landutakoa dela eta EH Bilduri, kontrara, "motela eta edukietan eskasa" iruditu zai

E.A.B. ARRASATE
Udal Gobernuak duela hilabete aurkeztutako aurrekontu proposamena onartu zuen udalbatzak abenduko osoko bilkuran, joan den eguenean, eta azken hamahiru urteetako handiena dela azpimarratu zuen Maria Ubarretxena alkateak. Podemos Arrasatek eta EH Bilduk aurka bozkatu zuten eta azken horrek, gainera, 39 emendakin aurkeztu zizkion proposamenari, banan-banan bozkatu zituztenak, baina Gobernuak atzera bota zituen guztiak (Goiena aldizkariak urtarilean argitaratuko du onartutako aurrekontuaren gaineko erreportaje zabal).

Aurrekontuaz gain, Arrasateko Hirigune Historikoaren Birgaitze Integraturako Plan Berezi berria ere onartu zuen udalbatzak, azken urteetako parte-hartze prozesua bukatuta.

Eugenio Uribarrenen agurra
Era berean, Eugenio Uribarren jeltzaleak uko egin zion zinegotzi karguari, osasun arazoak direla-eta, eta Vicente Ignacio Echeverriak ordezkatuko du, udalbatzak aho batez onartu ostean. EAJk, EH Bilduk eta alderdi sozialistak eskerrak eman zizkieten Uribarreni, azken urteetan egindako lan guztiagatik, eta hura ere esker onez agurtu

zen: "Hemendik pozik eta lagun askorekin irteten naiz".

Sozialisten mozioa
Alderdi sozialistak urriaren 31 dela-eta gerra zibilaren eta diktaduraren biktimak oroitze eta omentzeko mozioa aurkeztu zuen, baina EAJk eta EH Bilduk ezezko botoa eman zuten, eta ez zen onartu. Podemos Arrasate abstenitu egin zen.

Pintaketak gaitzesteko
Azkenik, Udal Gobernuak adierazpen bat egin zuen, abendu hasieran Maria Ubarretxenaren etxeko atarian egindako pintaketak gaitzesteko.

Ubarretxena, alkategai berri

Maiatzeko udal hauteskundeetarako alkategaia aurkeztu du Arrasateko EAJk eta Maria Ubarretxena Ciden alde egin du hirugarrenez. Aurreko bi agintaldietan urratutako bideari jarraipena emateko konpromisoa berretsi du Ubarretxenak, "ilusioz beteta; zortzi urteotan eraldaketa bat izan du Arrasatek eta orain jauzi kualitatibo bat egiteko garaia du".



HASIER LARREA





Ezkerrean, Iturripeko kiroldegi birgaituaren maketa; eskuman, Musakolako kiroldegi berriarena. 2025erako eta 2027rako prest egongo lirateke, hurrenez hurren. ARTEMAN KOMUNIKAZIOAREN ARTISAUAK

Kiroldegi hobekak egiteko plana

2019an abiatutako prozesu parte-hartzailea oinarri hartuta, Udal Gobernuak 2023-2027ko epealdiko Kirol Azpiegitura Plana aurkeztu du. Labor esanda, Iturriperen birgaitzearekin hasi eta Musakolako kiroldegi berriarekin amaitzea da helburua

Hasier Larrea ARRASATE

Bost urterako inbertsio plana gauzatzeko 35 milioi euro inguruko aurrekontua kalkulatu du Udal Gobernuak. Udalerriko zortzi instalazio hartzen ditu bere baitan: Markuleteko pump-track parkea, Erguin Herri Eskola, Iturripe, Uarkape, Musakola, Obenerrekako parkour parkea, Arrasateko Institutua eta Santa Teresako Arizmendi Ikastola.

Hala, bi izango dira esku-hartze garrantzitsuenak: Iturripeko gunea birgaitzea -8,7 milioi euroko aurrekontuaz- eta Musakolako kiroldegi berria eraitsi eta hutsetik berria egitea -24 milioi euroko aurrekontuaz-. Tartean, baina, ikastetxeetako hainbat gune ere egokituko dituzte eta pump-track parkea egin, "datorren urte hasierarako", Maria Ubaretxena alkatearen esanetan.

Lanak, hiru fasetan

2023 eta 2024. urteen artean, pump-track parkea egiteaz gain, Iturripe birgaituko dute, 14.342 metro karratuko azalera duen gunea, hain zuzen. Barnealdean bi kantxa, padeleko bi pista, gimnasio bat makinekin eta erabilera askotariko hiru areto izango ditu. Kanpoaldean, berriz, bi frontoi erdiitxi, kirol askotariko bi pista, skate parke bat eta atletismoko pista bat.

Lehenik Iturripe egiteak badu helburu bat: Musakolako kiroldegi berria egiteko lanei ekiten dietenean, herrian bertan alternatiba bat izatea. "Edozelan ere, igerileku zerbitzua, esaterako, ez dugu izango Arrasaten. Hori dela eta, dagoeneko hitz egin dugu beste udal batzuekin, erabiltzaile arrasatearrak zerbitzua jaso ahal izateko", adierazi du Ander Garayk, Kirol zinegotziak.

Orain dela 31 urte eraikitako Iturripeko gunea "herri guztia-ri" ireki gura diote, Musakolaren osagarri gisa, kanpoko gunea berrituz eta barruan gauza gehiago eginez".

2024-2025eko epealdian, ostera, ikastetxeetako eta Uarkapeko kirolguneak berrituko dituzte. Erguin Herri Eskolan estaldura itxiko dute; Santa Teresako Arizmendi ikastolan patioa estali eta Arrasate Institutuan kirol-pabiloia berritu. "Guretzako oso garrantzitsua da ikastetxeak ere kirol azpiegituren mapan txertatzea", dio Garayk.

ITURRIPEKOA PREST EGOTERAKOAN HASIKO LIRATEKE MUSAKOLAKO HUTSETIK EGITEN

2025-2027ko epealdirako laga dute Musakolako kiroldegi berria egiteko proiektua. Gipuzkoako zaharrena da, 45 urtekoa, eta, gainera, alkateak azaldu duenez, "gaixo dago, aluminosia dauka eta". Beraz, guztiz bota eta kiroldegi berria eraikiko dute. Honako espazio hauek izango ditu: igerileku handi eta txikia; spa; kanpoko igerilekua eta berdegunea; erabilera askotariko kantxa eta harmailak; rokodromo; padeleko bi pista, teniseko beste bi, taberna, tatami-gunea, erabilera askotariko bost gela, gimnasio bat makinekin eta klubentzako beste gimnasio bat.

Horrekin batera, Antoñako gunea ere berrituko dute, eta kantxa bat, squash pistak, bi frontoi eta erabilera askotariko gela bat izango ditu.

2017a ezker aztertzen

Herriko kirol azpiegituren azterketa 2017an abiatu zuen Udal Gobernuak, Musakolako kiroldegiaren 40. urteurrenean. Esku artean duten proiektua herritarrekin eta eragileekin elkarlanean egin du, ausaz aukeraturako zortzi erabiltzailek, udal-errolan ausaz aukeraturako hamarrek eta hamahiru kirol agentek parte hartuta. Proposamenak kalean bertan ere jaso dituzte.

Parte-hartze prozesuak irekita jarraitzen du, ekarpenak kiroldegian bertan, BAZen edo *kirolazpiegiturenmapa@arrasate.eus* helbidean egin baitaitezke.

"Iturripekoak 'Kirol Herria' du oinarri"

Arrasateko EH Bilduk "konpromiso serioa" azaldu du kirolaren arloko erronkei erantzuteko. Udal Gobernuaren Iturripeko kirol azpiegituren proposamena eta Arrasateko EH Bilduren *Kirol Herria* proiektua antzekoak direla aipatu du, "azken batean, duela lau urte *Kirol Herria* aurkeztu genuenean planteatzen genituen premisetan oinarritzen delako EAJ-PSeren proposamena". Gobernuak aurkeztutakoa ikusita, kezka batzuk partekatu ditu: "2019ko hauteskunde kanpainen Musakolako kiroldegirako makroproiektua aurkeztu zuten, eta ez da ezer ere egin; beldur gara Iturripeko beste iruzur bat izango ote den". Gainera, 35 milioi euroko finantzaketa nondik etorriko den azaldu ez dutela aipatu du, baita erabiltzaileen beharrak eta kirol guneetara heltzeko irigarritasuna kontuan hartu ez dituztela ere.

Azken ukituen faltan da Eguneko Arreta Zerbitzua

Atarte izenez bataillatu du Udalak mendekotasun arina duten 65 urtetik gorako pertsonak artatzeko eraikin berria: "Ez da eguneko zentroa izango; Atarten prebentzio jarduerak, jolas ekintzak, memoria ariketak eta digitalizazio tailerrak egingo dira"

Hasier Larrea ARRASATE

Mendekotasun arriskua edo mendekotasun arina duten 65 urtetik gorakoei zuzendutako eguneko arreta zerbitzu berria urtarrila eta otsaila artean jarriko dute martxan. Azken zazpi hilabeteotan ibili dira espazioa egokitzen, eta, orain, materialez hornitzea falta da. "Altzarien esleipena eginda dago, eta urte hasierarako iritsiko dira; hala, lokala egokituta geratuko da", adierazi du Iñigo Garitanok, Gizarte Zerbitzuetako arduradun teknikoak.

Elkartruckerako gunea

Erabiltzaileen autonomiari eusten lagunduko du Atartek, Maitane Muñoz Garapen Komunitarioko zinegotziak azaldu duenez: "Euren ohiko ingurunean egoten eta gizarteratzen lagunduko du, eta, hala badagokio, isolamendu-egoerak konpentsatuko ditu. Baita beste pertsona batzuekin harremanak izaten lagundu ere; bereziki, bakarrik bizi direnekin edo lan egiten duten senideekin". Hala, dinamizatzaileak arituko dira hamabi lagun inguruz osatutako taldeak artatzen. Estimulazio eta errehabilitazio esku-hartzeak, aisiaren bidezko hezkuntza eta kultura jarduerak eta laguntza



Ubarretxena, Muñoz eta Garitano, Garibai etorbideko Atarte eraikinean. H.L.

HAMABI LAGUNEO TALDEAK OSATZEA DA ASMOA, "TALDE TXIKIAK HOBETO IBILTZEN DIRELAKO"

emozionala landuko dituzte dinamizatzaileek erabiltzaileekin. Astelehenetik ostiralera 10:00etatik 13:00etara irekiko dute zerbitzua: "Baina, eskaeraren araber, arratsaldean ere irekitzea baloratuko dugu".

160 pertsonari eskutitza

Egunotan, erabiltzaile-profila bete dezaketen pertsonekin harremanetan dihardu Udalak. Arrasaten erroldatuta, 65 urtetik gorako adina eta mendekotasun arriskuan edo lehen graduan egotea dira Atarten parte hartzeko baldintzak, eta egoera hori duten 160 onuradun posiblerik bidali diete informazioa. Xehetasun gehiago jakin nahi duenak Gizarte Zerbitzuen bulegora jo dezake, 943 25 20 07ra deitu edo ongizate@arrasate.eus-era mezua igorri.

Pandemia aurreko itxura berreskuratuko du Txikilandiak

Txatxilipurdi elkarte hezitzaileak prest du urtarrilaren 2tik 4rako egitaraua, etxeko txikiaren gozamenarako

H.L. ARRASATE

Azken urteotan bezala, Musakolako igerilekua, Uarkape pilotalekua eta gaztetxea jolasleku bihurtuko dira urteko lehen egunetan. Dagoeneko 32. aldiz antolatuko dute Txikilandia, eta, egitasmoaren koordinatzaileen esanetan, "hurrek, aurrenerabeek eta guraoek urtero egiten dioten harrera beroagatik izan ohi da arrakastatsua".

Udaleko Gazte eta Gizarte Zerbitzuen Sailak ere egiten du ekarpena, "Arrasateko familia guztiek bertan parte hartzeko

aukera izan dezaten". Hala, familia zaurgarriek Biztanleen Arreta Zerbitzuan eskuratu ahal izango dituzte, berezko prezioan baino merkeago, aisialdiko ekintza guztietarako sarrerak.

Bestalde, abenduaren 27an eta 28an Biterin informazio-gune bat jarriko dute, eta eskuragai egongo dira bertan Txikilandian parte hartzeko txartel guztiak, baita Ekintzen Laborategikoak ere; 9 urtetik gorakoei zuzendutako hitzorduak izango dira horiek, tren geltoki zaharreko gaztelekuan garatuko direnak.

Markuleteko pumtrack parkea, bost hilabete barru erabilgarri

Udalak Poolsport Soluciones SL enpresari esleitu dio aurrekontu parte-hartzaileetatik irtendako proiektua

H.L. ARRASATE

Markuleten pumtrack pista egiteko ideiak 1.311 boto jaso zituen 2021 eta 2022 arteko aurrekontu parte-hartzaileen prozesuan. Hala, Udal Gobernuak Kirol Azpiegitura Planean txertatu du egitasmoa (Ikus 10. orria), eta hori izango da planaren baitan gauzatuko den lehen azpiegitura. Markuleten dagoen 3.900 metro koadroko zelaia erabiliko dute horretarako, eta 82.000 euroko inbertsioa egingo dute -gehi BEZA-. Abendu hasieran itxi zuen Udalak proiektua

idatzi eta zirkuitua eraikitzeke lizitazio prozesua, eta Poolsport Soluciones SL enpresa izan da lehiaketa publikoan emaitza onena eskuratu duena.

Monopatin, patin eta bizikleta gainean praktikatzen den jarduera da pumtracka. Parkeak bihurtzeko goratuak, jauziak eta badenak izan behar ditu, arau nagusia elementu horiekin lortzen den inertzia aprobetxatzea baita, patinei eta monopatinei bultzada ematea eta bizikleten pedalei eragitea debekatuta baitago.

Lehenago Abaroa, Udalarena orain

200 metro karratu inguruko espazioa gaitzeko inbertsioa 475.000 eurokoa izan da -BEZA kontuan hartu gabe-, eta datozen asteotan hornituko dute materialez. Iturbide egoitzaren alboko eraikinean egongo da Atarte, lehenago Abaroan. Atartek eta Iturbide ez dutela zerikusirik argitu du Udalak; hau da, bakoitzak bere zerbitzua emango duela.



Eraikin berriko gela nagusia. H.L.

Abg 80

TANATORIOA

BEILATOKI BERRIA ARRASATEN

Guztion zerbitzura 24 orduz

ARRASATE HILETA BERRIA

Deitu eta informa zaitez!!

943 79 22 19

Araba etorbidea 3, 20500 ARRASATE. www.funerariaarrasate.com

"Batallanekin 'Finisterrai' estreinatzea ametsa da"

ALBERTO URRETXO BILBOKO ORKESTRA SINFONIKOKO TRONBOI-JOLEA
Bilboko Orkestra Sinfonikoak gaur, egubakoitza, Euskaldunan joko duen Gabonetako kontzertua Arrasateko musikariari eta Esteban Batallan-i eskainitakoa izango da

Xabier Urzelai Atxa ARRASATE

Lerrook irakurtzen dituzueneko, Alberto Urretxok (Arrasate, 1972) emana izango du Esteban Batallan tronpeta-jole bakarlarriarekin batera, eta Bilboko Orkestra Sinfonikoak lagunduta (BOS), Euskaldunako bi eman-kizunetako lehena. BOSen eta Bilboko Bandaren Gabonetako kontzertua da, eta, hain zuzen, Urretxori eta Batallani eskainitako emanaldia da. Atzo, hilak 22, izan zuten lehen kontzertua, eta gaur, hilak 23, da bigarrena. Eguaztenean, Urretxok Euskaldunatik irten berrikan erantzun zion GOIENAKo deiari, eta aitortu zuen metro gutxi batzuetara egonda ere, Bilbon, San Tomas feria usaindu ere ez zuela egin. Lanez lepo ibili da.

Irakurleek elkarriketa irakurtzen dutenerako lehenengo kontzertua emana izango duzue. Aurretik, ze sentsazio dituzu?

Oso sentsazio onak ditut, lan handia egin dugu azken hilabetean eta proiektu honek bereziki egiten dit illusioa. Batetik, Bilboko Orkestra Sinfonikoaren 100. urteurrena ospatzen gabiltza, Gabonetako kontzertua da, eta, bereziki, niretako erreferente den Esteban Batallanekin [Chicago Symphony Orkestrako tronpeta-jolea da] batera *Finisterrai* izeneko pieza-sorta estreinatzeak gauza handia izan behar du.

Aspaldiko proiektua duzue hau.

Bai; Esteban eta biok aspaldidanik ezagutzen dugu elkar, orkestra txikiagoetan ere elkarrekin jo izan dugu. Sarritan aipatzen genuen halako zerbait egin gura genuela, eta, begira, izarrak lerrokatu egin dira, iritsi da momentua. Ricardo Mollari egin genion *Finisterrai* pieza sorta idazteko enkargua; guretako inbertsio bat da eta aurrerago ikusiko dugu non grabatuko dugun lan hori, AE-Betan, European... Baina nireta-



Alberto Urretxo, artxiboko irudi batean. GOIENA

"RICARDO MOLLAK ONDO EZAGUTZEN GAITU; HARI ESKATU DIOGU 'FINISTERRAI' IDAZTEKO"

ko gauza oso polita da Esteban Batallanekin batera proiektu hau gauzatzea, nazioartean erreferente da eta momentu ikusgarrian dago. Eta, seguruenik, aurrerago zaila izango da harekin halako zerbait egitea. Eta, hain zuzen, hori da kontzertu honen oinarria, bi lagun arteko adiskidetasuna; ideia horrekin sortu dugu.

Ricardo Molla tronbonista eta konpositorea aukeratu duzue enkargu hau egiteko. Zergatik hura?

Hainbat izen izan genituen mahai gainean, eta hura aukeratu genuen, bereziki, gaztea izan arren urte asko daramatzalako gauzak oso ondo egiten, oso ondo idazten. Nazioartean ezagun egiten dabil, eta, bereziki, metal-instrumentuen konpositore gisa erreferente bilakatzen dabil. Baina, gainera, konpositorea izateaz gain, tronboi-jolea ere

bada, eta horrek ere erakarri egiten gintuen. Eta, azkenik, eta pisuzko arrazoia izan da, Ricardok oso ondo ezagutzen gaituela bai Esteban eta bai ni.

Bi egun hauetan bete egingo duzue Euskalduna?

Euskalduna jauregia betetzea asko kostatzen da, oso handia delako, eta, gainera, egun bereziak dira, baina badakit sarreren martxarekin antolatzaileak gustura zeudela. Eta badakit, baita ere, Estebanek kanpotik jende asko erakarriko duela. Gaur egun, ez da oso erraza Esteban Batallan zuzenean jotzen ikustea, eta jendea etorriko da hura ikustera.

Euskaldunako bi emanaldi hauen ondoren atsedean hartuko duzue?

Bai; hilabete oso beteak izan dira, bereziak. Hilabete honetan, esaterako, bi obra estreinatu behar ditut, duela hamabost egun Nafarroan izan nintzen jotzen... Bai, lan mordoarekin ibili gara. Atsedean hartzea ere komeni da, eta etxekoekin egiteko baliatuko ditut Gabonak; urtarrilean bueltatuko gara ostera ere lanera eta 2023a antolatzen hasiko gara, baditugu-eta proiektuak esku artean.



MIQUEL PLANELLS

'Udazkena lakuan' irabazle

Miquel Planellsek irabazi du Artgaztik antolatutako VIII. Udazken Lehiaketa. Bigarrena Angel Maria Cerezo izan da eta hirugarrena, Francisco Javier Dominguez. 29 argazki eramango dituzte Kulturategoko erakusketara: urtarrilaren 12tik 21era. Lortzen den dirua errakismoa dutenei laguntzen dien AERYOH elkartera bideratuko dute.

Bibliotekako Gabonetako lehiaketa urtarrilaren 8ra arte

Arrasateko Bibliotekak abian jarri du Gabonetako lehiaketa. Udalaren webgunean (www. arrasate.eus) zintzilikatuta dagoen formularioko zazpi galderak zuzen erantzuten dituenak Arrasateko Elkar dendan erabiltzeko 60 euroko hiru bonoko zozketan hartuko du esku, baita Arrasateko bost liburu-sortaren zozketan ere.

Txelisen omenezkoa antolatuko du hilaren 30erako Mondrak

Mondrak Jose Luis Ibarguen, Txelis, omenduko du, hamabosgarren urtez, datorren abenduaren 30ean. Txelis, Mondrako jokalarizateaz gain, zuzendaritzako kide, laguntzaile eta formazio eta behe mailako taldeetan entrenatzaile ere izan zen, eta hilaren 30ean 250 neska-mutiko inguruk jokatu dute haren omenez. Bada, klub zuri-moreak 16 talde gonbidatu ditu torneorako. Bada, Abadiño da Bizkaitik etorriko den taldea, eta gainontzekoak gipuzkoarrak dira, Reala tartean. Txapelketa beste urte batzuetan goizez jokatu izan dute, baina aurtengo edizioa arratsaldean jokatu dute (14:00etan hasita).

Porco Bravoren kontzertua, hilaren 29an, Kooltur-en

Abenduaren 29ean egingo dute urteko azkeneko Kooltur emanaldia, eta urteko agur kontzertuan Barakaldoko Porco Bravo taldea izango da Arrasateko gaztetxean -22:00; sarrera, 7 euro-. Bizkaitarrek 20 urteko ibilbidean gorabehera asko izan dituzte, baina aurtengo uztailean azken LPa grabatu dute, taldearen laugarrena: *Somos*.

Jaia egingo dute Amaian, Porrotxinen urtebetetzean

Urtarrilaren 3an (18:30), Porrotxinen 15. urtebetetzea ospatuko jaia egingo dute Amaia Antzokian. Porrotxek, Porrotxinek eta Arrasateko hainbat eragilek hartuko dute esku jaialdi horretan, eta sarrerak laster jarriko dituzte salgai. Sarreren prezioa bi eurokoa izango da eta pertsona bakoitzak gehienez lau txartel erosi ahal izango ditu.

Ikuskizuna haurrei zuzenduta dagoenez, haiekin joango diren heldu kopurua zaintzea eskatu dute antolakuntzatik. Sarrerak salgai egongo dira Biterin abenduaren 27an, 18:00etatik 20:00etara, eta abenduaren 28an, 11:00etatik 13:00etara.



Mari Domingi eta Olentzero eskolako umekin, atzo. A.E.G.

Iritsi dira eskolara Mari Domingi eta Olentzero

Guraso Elkarteak antolatuta, zapatu iluntzean berriro ere etorriko dira etxeko txikienak agurtzera. Horrez gain, Udalak eta herriko eragileek egitarau zabala prestatu dute Gabon jaietarako. Gaur, bertso saioa egongo da kultura etxean

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Gabonak bertan daudela adierazten duten lehen ekitaldiak egin dituzte dagoeneko. Atzo, esaterako, Aramaixo Herri Eskolara iritsi ziren Olentzero eta Mari Domingi. Eskolako neska-mutikoak gogotsu zeuden Euskal Herriko ikazkin ospetsuena eta nekazaria bertatik bertara ikusteko. Eskutitzean eskatu dituztenak azalduz, solasaldi goxoa izan zuten eskolan.

Ondoren, hirugarren zikloko ikasleek prestatutako txistorra jan zuten.

Bertso saioa gaur

Azken urteetako ohiturari jarraituz, bertso saioa izango dute gaur, barikua, Aramaio Eskolako Eskolak antolatuta. Kultura etxean izango da, 19:30ean, eta kantuan arituko dira Saioa Alkaiza, Danel Herrarte, Sustrai Colina eta Oihana Iguaran. Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean izan den Colinaren ondoan herriko bertsolari gaztea

ikusteko aukera emango du bertso saioak. Sarrerak 5 eurotan jarriko dituzte salgai.

Olentzero eta Mari Domingi

Esan bezala, atzo eskolan izan ziren bi pertsonaia ospetsuak, eta bihar, herriko kaleetan barrera plazara iritsiko dira Olentzero eta Mari Domingi. Eskolako guraso elkarteak antolatuta izango da. Iluntzean izango da ekitaldia.

Gabon gaua eta Eguberri eguna pasa ondoren, bestelako ekintzak antolatu ditu Udalak gatzetxoendako: abenduaren 26an, 27an eta 28an, esaterako, umeendako tailerrak egingo dituzte kultura etxean, 12:00etatik 14:00etara. Eskulanak eta bes-

BERTSO SAIOA EGINGO DUTE GAUR KULTURA ETXEAN, 5 EUROREN TRUKE, BERTSO ESKOLAK ANTOLATUTA

telako ekintzak egiteko aukera izango dute; hala, goiza modu dibertigarrian pasatuko dute.

Horrez gain, abenduaren 29an ipuin kontaketa saioak egongo dira liburutegian. Bi saio egingo dituzte: 17:00etan 0-6 urte bitartekoendako eta 18:00etan 6-99 urte bitartekoendako.

Antzerkia: 'Intxaurrak'

Kultur emanaldiak ere izango dira Gabonetan: abenduaren 27an, martitzena, 19:00etan, gospel kontzertua egingo dute kultura etxean; abenduaren 30ean, aldiz, *Intxaurra* antzezlan ikusteko aukera egongo da. Lesako Mairu antzerki taldearen lana da, Uemako Arnasguneak bekari esker sortutakoa. Antzezlan egiteko Manex Fuchs laguntza izan du taldeak. Bada, aurten bertan estreinatutako lana eroango dute Aramaio kultura etxera –19:00etan–.

Urtea amaitzeko, Orixolera irteera egingo dute. 08:30ean elkartuko dira, frontoian.



NIRE USTEZ

MARKEL ARRIOLABENGOA

Sutondoko berbak

Ibaien amonak dio *papargorrix*e gailupa dela, eta ez txantxangorria; hori *txantxangorrix*e dela. Ana Marik, mugak zehazteko baliatzen zituzten zuhaitz lepatuei *ipiñu* esaten diotela, eta astigarrari *askarra*. Emiliok lephoria *potoxie* dela, eta ez duela zerikusirik *ogitagaztaie*-rekin; piztia bakoitzak baduela bere izena.

Azkenean dagoen belaunaldi baten hitzak dira; zenbait, inoiz euskarri idatzirik aurkitu ez dutenak. Beraz, berba horien arrantzarako azken uneak ditugu hauek. Topiko bat dela?

Bai, noski. Zer egingo diogu, bada, negu giroak nostalgiara bagaramatza...



MIGUEL LOITI

Mus txapelketako irabazleak

Alaiak erretiratuen elkarteak antolatuta mus txapelketa jokatu dute, liga eran. Bost asteko jardunaren ondoren, Jabier Nafarrate eta Angel Astondoa izan dira irabazleak. Horrez gain, abenduaren 14an mus *relanpago* txapelketa jokatu zuten: irabazleak Elena eta Ana Mari Arrizabalaga ahizpak izan ziren –beheko argazkian–.

Euskara teknikaria eta bi peoi kontratatu nahi ditu Udalak

Aramaio Udalak hiru langile kontratatuko ditu. Batetik, aldi baterako Euskara teknikaria kontratatu nahi du, lanaldi erdian, lanpostuaren titularra itzuli bitartean. Zereginak izango dira euskararen inguruan ekimenak aurrera eramatea, bertako eragileei horretan laguntzea, postuari dagokion tramitazio eta lan administratiboa

egitea, baita Udalaren komunikazioan laguntzea ere. Lizenziatura, gradua edo baliokidea, laugarren hizkuntza eskakizuna eta Lanbiden izena emanda egoitea eskatuko dute.

Bestalde, Udalak bi peoi kontratatu nahi ditu, lanaldi erdian, hiru hilabeterako. Espazio eta eraikin publikoen eta espazio berdeen mantentzeaz arduratuko dira. Izena emateko azkeneko eguna abenduaren 26a izango da. Lanbiden eman behar da izena –bulegoan edo online–.

Ohiko ekitaldiak bueltan Gabonak girotzeko

Mari Domingik eta Olentzerok abenduaren 24 eguerdian umeei harrera egiteko ohitura berreskuratuko dute, iluntzeko kalejira baztertu barik; kultura ekitaldiek ere ez dute hutsik egingo eta musika emanaldiak, antzezlan eta bertso-saioa izango dira

Mirari Altube ARETXABALETA

Inolako mugarik eta murrizketarik gabeko Gabonak ospatzeko gertu agertu dira Udaleko ordezkariak eta Kultura Sailetik antolatutako egitarauak hori erakusten du. Umeek lasai eman ahal izango dizkiete muxuak eta gutunak Gabonetako pertsonaiei.

Gabon kantuan

Gabon egunak goizean jarriko ditu martxan hainbat herritar. Lekaixoka bertso eskolako kideak 08:03ean elkartuko dira gosaltzeko, eta, ondoren, 09:15ean, Urkulun ekingo diote bertso-birari. Areantza, Aozaratza, Goroeta eta Larrino auzoetako baserrietan kantuan eta bertso-tan jardungo dute. Herriko umeak eta Basotxoko erretiratuak ere ibiliko dira Gabon kantuan, baina haiek kalerik kale, 10:30ean hasita. Eta eguerdian, 12:00etan, Mari Domingik eta Olentzerok harrera egingo diete neska-mutikoei Herriko Plazan. Iluntzean itzuliko dira haiek: 18:30ean abiatuko dira, kiroldegitik, txistulariek lagun eginda.

Abenduaren 31n Bizarzuriren bisita jasoko dute neska-mutikoei eta urtarrilaren 5ean Errege Magoena; haiek guztiak ere 18:30ean irtengo dira kiroldegitik eta Herriko Plazarainoko ibilbidea egingo dute.

Kultura ekitaldiak

Kultura ekitaldiei ere egingo diete lekua egunotan. Astelehenean, Txalo Produzioak taldeak *Kottauak* antzezlan eskainiko du (19:00), Ane Gabarain eta Mikel Laskurain protagonista dituela, eta martitzenean, Leuneko seikoteak Gabon kantekin girotuko ditu kale-bazterrak (19:00). Eguaztenean, hilaren 28an, Ispirit talde donostiarrak gospel eta soul doinuekin beteko du Arkupe (19:00), eta egue-nean, bertso-saioa eskainiko dute honako bertsolari hauek:



Mari Domingik eta Olentzerok Herriko Plazara ailegatzen umeak agurtzeko. M.A.

Bixente Etxeandia txapelketa

Klasikoa den futbol eskolen arteko txapelketa abenduaren 26 eta 28 artean jokatu da Ibarra futbol zelaietan. Guztira, zazpi elkartetako taldeek jardungo dute nor baino nor gehiago; hona hemen horiek: UDA, Mondra, Bergara eta Aloña Mendi, Lazkao, Elorrio, Otxandioko Vulcano eta Gasteizko Ariznabarra.

Abenduaren 26 goizean (09:00-14:00), 2014an jaiotako txanda izango da; eta arratsaldean (15:00-19:30), 2013an jaiotako neska-mutikoena. Hilaren 27an, 2012koek jardungo dute, goizez (10:00-13:00) eta arratsaldez (16:00-18:00). Eta 28an, finalerdiak eta finalak jokatu dira (15:30-19:30).

Uxue Alberdi, Ane Labaka, Andoni Egaña eta Igor Elortza. Egubakoitzean, oster, Aretxabaleta Abesbatzak, kantu ikasleek eta Leizarra musika eskolako gaztetxoek abesbatzak emanaldia egingo dute parrokiaren (19:00). Arkupeko ekitaldietarako sarrerak dagoeneko salgai daude online zein leihatilan.

Gaztelekuak antolatutakoak

Atxagazte gaztelekuak ere ekitaldi sorta antolatu du nerabeendako. Datorren astean hasita, hauek izango dituzte: krema tailerra, Bedoñara irteera, Gazte Txef, Salting Iruñara txangoa, bingo musikatu eta zinema. Irteerarako izena eman behar da eta gainerakoetarako ere ematea gomendatu dute—gaztelekuak, telefonoz: 688 84 38 15 edo Instagram bidez: @atxagazte—.

Gabonetako jolasparkea

Urtarrilean ere izango dute ekitaldirik neska-mutikoei: 3an eta 4an, hain zuzen ere Gabonetako jolasparkea egokituko dute Ibarra kiroldegian. Puzgarriak, eskulanean txokoak eta era askotako jolasak izango dituzte aukeran, goizez eta arratsaldez.



Kolonbiako birziklatzaile bat. HIRUATX ELKARTEA

Kolonbiako birziklatzaileen lan baldintzak hobetzea helburu

Hiruatz elkarteak orain arte egindako proiektuen eta esku artean dituenen berri eman die laguntzaileei

M.A. ARETXABALETA

Urtea bukatu aurretik esku artean dituen proiektuen berri eman izan du Hiruatz gobernu kanpoko erakunde aretxabaletarrak eta aurrean ere jaso dute gutuna bazkideek eta laguntzaileek.

Batetik dago Ekuadorko Andean Mundukiderek elkar-lanean garatutako arnas sistema eta sistema immunologikoa indartzeko praktika tradizionalen erabilera biziberritzeko proiektua: "Ongi burutu da, ekoizpen agroekologikoan sakondu eta merkaturatzeko bidea zabaldua".

Bestetik, Ekuadorko Amazonian kitxuar emakumeen ahaluntze ekonomikoa lortzeko lanean jarritzen dutela adierazi dute, kakaoaren, wayusaren eta platanen ekoizpen ekologikoari helduta: "Wiñakeko lagunek urteotan erakutsitako lan gaitasunari eusten diote, eta laguntzen jarraitzea erabaki dugu".

Birziklatzaileekin lanean

Aurrekoak errematatuta, proiektu berri bati ekin diote, hori ere Mundukiderek. Kolonbiako Cauca departamenduan birziklatzaileen lan eta bizi baldintzak hobetzea da asmoa: "Horretarako, ibilgailu bat erosi nahi da. Zerbitzu hobea eskainita elkar-teko bazkideek gutxieneko diru sarrerak handitzeko aukera izango dute". Hala, material organiko gaika biltzeko ibilbideak ezarri nahi dituzte, eta erabiltzaile den komunitatearen eta zerbitzua eskaintzen duen ofiziozko birziklatzailearen artean gizarte eta ingurumen erantzukizuna lortu.

Hiruatz bitartez proiektu horri lagundu gura izanez gero, hona hemen bideak: Fiare: ES16 1550 0001 2900 0227 0320; Laboral Kutxa: ES17 3035 0002 15 0020036568; eta Kutxabank: ES73 2095 5024 9910 7012 6882.

Erakusleho lehiaketan botoa emateko azken eguna da domeka

Erakusleho lehiaketaren lehen saria aditu batek erabakiko du eta bigarrena, berriz, herritarrek hautatuko dute. Horretarako botoa eman dezakete Arkupe jarritako kaxan, online eta dendetan ipini den QR kode baten bidez; azken eguna domeka da. Sari banaketa ekitaldia abenduaren 28an egingo dute, eguaztena.

Gaztetxea eskatzeko manifestazioa egingo dute astelehenean

Aretxabaletan "gaztetxe baten beharra" dagoela aldarrikatzeko eta jabe handiek herriko "espazio bat baino gehiago gurata hutsik" dituztela salatzen manifestazioa egingo dute abenduaren 26an, astelehenean. Herriko Plazatik abiatuko da hori, 19:00etan, eta deitzaileen gogoa da herriko zein inguruko ahalik eta jende gehien batzea.



Sareko kideak, Zaraia eta Murruxiko mendizale elkarteetakoak, eragile batzuk eta Garikoitz Garciaen arreba Amaia. M. ALTUBE

Urtea bukatu aurretik, presoan egoera gogoan

Sarek antolatutako abenduaren 31ko ekitaldiek ez dute hutsik egingo. 'Etxerako bidean oztoporik ez!' leloarekin Garikoitz Garcia preso aretxabaletarraren eskubideak aldarrikatuko dituzte, goizean Kurtzebarri tontorrean eta iluntzean Herriko Plazan

Mirari Altube ARETXABALETA

Euskal presoan aldeko aldarrikapenak ohikoak dira urte amaieran, eta Aretxabaletan, Zaballan (Araba) dagoen Garikoitz Garcia Arrieta izango dute gogoan. Sarek deitutako *Kurtzebarritik plazara!* ekimenarekin bat egin dute, gainera, Zaraia eta Murruxiko mendizale elkarteetako ordezkariak, Kantu Poteoko kideak, Etxerategi eta Ernaik, besteak beste.

Gradu progresio eskaera

Sareko kideak aditzera eman dute 110 euskal presok -haien artean Garcia- hirugarren gradurako baldintzak beteta dituztela: "Orain arte, 32 dira hirugarren gradura aldatutakoak. Horietatik bederatzita gradu erregresioa jasan dutenak, baina gaur egun sei presori eragiten die neurriak. Gainera, hamalau dira espetxera bueltatzeko arriskuan daudenak, Auzitegi Nazionalako fiskaltzak jarritako errekurtsioak direla eta".

Atzerapausorik izan ez dadin, aktibazio soziala bultzatzea ezinbestekoa dela uste du Txarli Garciak, Aretxabaletako Sareko kideak: "Orain dela urtebete baino hobeto gaude, baina oraindik salbuespen politikan oinarritutako erabakiak aplikatzen zaizkie presoek, eta horrek bukatu egin behar du".

Garikoitz Garciak, esaterako, urtarrilean hamahiru urte beteiko ditu preso, eta dagoeneko bi urte daramatza Zaballan, bigarren graduan. "Bisitak asko erraztu ditu Araban egoteak, baina legez, irteteko baimena ere izan beharko luke", adierazi du Amaia Garcia arrebak, eta Txarli Garciak gaineratu: "Baldintza guztiak beteta izan arren,

BI URTE DARAMATZA ZABALLAN GARCIAK, BIGARREN GRADUAN, ETA EZ DU ALDAKETARIK IZAN

ez du izan inolako progresiorik etorri zenetik. Ez dugu ulertzen zergatik ez den pausorik ematen. Horregatik eskatzen dugu gradu progresioaren gaineko lanketa".

"Etxeratze prozesu" horretan aletxoak jartzeko abenduaren 31rako antolatutako ekitaldiekin bat egitera gonbidatu dituzte herritarrek. *Kurtzebarritik plazara!* leloarekin mendi tontorrean elkartuko dira, 11:00etan. Hara joaterik ez dutenek beste aukera bat izango dute, iluntzean, 19:00etan, Herriko Plazan -azken ostiraleko elkarretaratzetik ez da egingo, zapatukoak indartzeko-; Kantu Poteoko lagunekin batera kantuan egitea da asmoa.

Urtarrilaren 7an Bilbora

Autonomia kalea betetzera goaz leloarekin urtarrilaren 7an Bilbora joateko gonbidapena ere egin dute. Autobusa jarri dute horretarako eta txartelak dagoeneko salgai daude Gurea eta Urbaltz tabernetan, 10 eurotan; azken eguna urtarrilaren 4a da.



Irabazlea, Igartuaren senideak eta epaimahaiko, Udaleko eta Pamielako ordezkariak. J.B.

Oihane Jaka Irizarrek irabazi du XII. Karmele Igartua sariketa

Igartuaren obra osoa biltzen duen liburu aurkeztu zuten ekitaldian: 'Poesia bizitzeko eta sentitzeko modua'

Mirari Altube ARETXABALETA

Karmele Igartua 2022ko Sorkuntza Bekaren saria Oihane Jaka Irizar donostiarrak jaso zuen joan den zapatuan, *Berriro jaiotzeko saiakera antzua* poema-lanagatik. "Misterio eta sakontasun handiko lana" dela azpimarratu zuen epaimahaia. 2.500 euro jaso zituen sarizat eta lan hori *idazten.eus*-en argitaratuko dute.

Aretxabaletako Udalak eta Bergarako Idazle Eskolak elkarlanean antolatzen duten lehiaketaren helburua idazle berriak bultzatzea da. "Oso espazio gutxi daude poesia eta euskaraz era-

kusteko eta sariketa hauek garrantzitsuak dira", zioen irabazleak. Aurten hemeretzi lan jaso dituzte, inoiz baino gehiago, eta "maila oso onekoak", epaimahai-kide Pako Aristiren esanetan: "Heldutasun handiko poeta gazteak aurkeztu dituzte lanak. Eta hamar bat lan argitaratzeko modukoak izan dira".

Bestetik, Igartuak idatzitako poesia-liburu guztiak bakarrean batu ditu Pamielak: *Poesia bizitzeko eta sentitzeko modua*. Horren berri eman zuten argitaletzeko Jose Angel Irigarayk eta Idazle Eskolako Tere Irastortzak.



ANABEL DOMINGUEZ

2021ean jaiotakoei bertso bana

Lekaixoka bertso eskolako kideek bertso bana idatzi diete 2021ean jaiotako umeei, eta horiek liburuxka batean jaso ditu Udalak. 45 ume izan arren iaz jaiotakoak, ekimenean 27k eman zuten izena. Liburuxkak banatzeko ekitaldia Arkupen egin zuten eta han elkartu ziren protagonistak, Udaleko ordezkariak eta bertso eskolako kideak.



Eskoriatzako udalbatzako kideak abenduko ezohiko osoko bilkuran, martitzenean, osoko bilkuren aretoan. IMANOL BELOKI

2023rako, 7,9 milioi euroko aurrekontua onartu du udalbatzak

Abenduko ezohikoa izan dute asteon udalbatzako kideek, eta Eskoriatzako Udalaren 2023ko ekitaldirako aurrekontu orokorra onartu zuten; bozketaren emaitza honako hau izan zen: aldeko zazpi boto (EAJ eta Elizateak) eta kontrako lau boto (EH Bildu)

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Agintaldi honetako azken aurrekontua onartu zuten martitzenean Eskoriatzan. Iazkoarekin alderatuta, %49 handiagoa. Zinegotzi berri baten kargu-hartzea ere onartu da abenduko osoko bilkuran. EH Bilduko Ander Errarteren ordez Xabi Uriarte eskoriatzarrak jardungo du aurrerantzean.

Inoizko aurrekontu handiena

Aurrekontuak bi helburu nagusi dituela adierazi zuen Josu Ezkurdiak, EAJko bozeramaileak: "Inoiz baino handiagoak izango dira datorren urterako aurrekontuak. Batetik, aurrekontu orekatuak prestatzen saiatu gara; ohiko sarrerak eta ohiko gastu arruntak berdina izatea oreka finantzarioa lortzeko eta defizit estrukturalik ez sortzeko. Eta, bestetik, Eskoriatza eraikitzen jarraitu nahi dugu, proiektu estrategikoekin. Hau da, inbertsioetan apustu handia egingo dugu. Horrekin batera, Gizarte Zerbitzuak indartu nahi ditugu egungo egoeratik; herritarrek laguntza behar dute, eta, beraz, diru partida handitza

da asmoa. Dirulaguntza programak indartuko dira, energia-bonuak aterako ditugu, eta inflazioaren kontrako erosketabonuak ere bai". Inbertsioetarako diru sarrerak, berriz, Jaurlaritzaren eta Aldundiaren dirulaguntzetatik -718.000 euro- etorriko direla gaineratu du Ezkurdiak, eta mailegu bat eskatuko dutela -1,5 milioi euro-, Energiaren Euskal Erakundearen *Gauzatu* bitartez.

EH Bilduk ekarpenak egin zituen, baina EAJk ez zituen onartu. "Ekarpen interesgarriak

INBERTSIO NAGUSIAK GEOTERMIA PROIEKTUA ETA SKATE PARKE BERRIA IZANGO DIRA

"INOIZ BAINO HANDIAGOAK IZANGO DIRA DATORREN URTERAKO AURREKONTUAK"

dira, baina proiektu gehienak formakuntzak ziren, jendeari erakusteko energia-fakturak nola murriztu... Teorizatu baino gehiago, ekin egin behar dugula uste dut. Gure planteamendua dirulaguntza-bonuak ateratzea izan da; adibidez, datorren astean faktura ordaindu behar duten familiei laguntzeko. Uste dugu EH Bilduren planteamendua nahiko irrealia izan dela gaur egungo egoera ikusita".

EH Bilduren ekarpenak

Herritarrentzako energiaren gaineko aholkularitza-zerbitzu bulego bat jartzea proposatu zuen EH Bilduk, herritar askok faktura bat irakurtzeko izan ditzaketen zailtasunak kontuan hartuta. Energia komunitatea sortzen laguntzea; hau da, herritarrek ahalduntzea. Eta, hirugarren ekintza gisa, garraio jasangarriaren sakontze-lana egitea, politikariak eredu izateko. "EAJren proposamenean dirulaguntzak ematen dituzte energia-kostuetan laguntzeko, baina horrekin sistema mantentzen ari gara; horrela ezin dugu jarraitu. Horrela, herritar

negoziatzeko borondaterik izan; beraz, ezetza eman diegu", adierazi zuen Nestor Aranak, EH Bilduko bozeramaileak.

Elizateak, "pozik"

"Akordioa dugu EAJrekin, eta gure proposamena egin genien. 175.000 euro inguruko partida bideratuko da; eta horrekin oinarri bera mantendu dugu. Sastrakak kentzeko zerbitzua izatea, elurra kentzeko zerbitzua, bide konponketarako zerbitzua izatea... eta, berrikuntza moduan, landa lurzoruen digitalizazioari begirada jarritz, Aldundiaren dirulaguntza bat baliatuz, programa sustatzea eskatu dugu. Helburua da landa lurzoru publikoak edo pribatuak eguneratzea gaur egungo tresna teknologikoak erabiliz; horrela, onura emango dio norbanakoari, landa lurzoruen mugak identifikatuta eta adostuta izango dituelako, eta, era berean, Udalak argazki erreal bat izango du gaur egungo landa eremuez. Onartu den beste ekarpen bat izan da zenbait elizateetan telebista seinalearekin arazoak izan direla eta lortu dela antena bat jartzea; seinalea baserri guztietara iristeko hobekuntza batzuk egin behar dira; kostu horretan ere laguntzeko partida bat bideratuko da", adierazi zuen Leire San Vicentek, Eskoriatzako Elizateen Elkartearen kideak.

pasibo eta kontsumitzaile bat mantentzen ari gara, eta ez dugu ikusten. Horrekin batera, iaz, energia plan bat adostu genuen eta horregatik eman genien baietza, eta egin gabe dago. Energia plana 2030era begirako erronkak nola egin behar ditugun ezartzea da herri bezala, eta Udala bakarrik dago. Ez dugu ikusten nola geotermia izan daitekeen kasurik onena. Ez dugu teknologia hau baztertzen, baina ez daude beste proposamen batzuk irudikatuta. Udala zorpetu egin behar dugu datozen zazpi urteetarako geotermia proiektu honetarako. Dirulaguntza eskatu da, aurreproiektua egin da, eta orain proiektua; etxea atzekoz aurrera egiten ari dira. Guk 120.000 euroko partida bat ezartzea eskatu dugu, eta ez da

2.270.000 euro inbertsioetarako

Energia jasangarria bultzatzeko, Geotermia sistema ezartzea izango da 2023ko aurrekontuetara bideratu nahi duten inbertsio nagusia. Udal eraikinetan, hau da, Manuel Muñoz kiroldegian, Luis Ezeizan, udal liburutegian eta Joseba Iñurategi pilotalekuan ezarri nahi dute sistema. Argiteria gastua eta, bereziki, gasaren dependentzia murriztea, energia jasangarria erabiltzeko asmoz, guztira, 1.842.000 euro bideratuko dituzte lan honetara; hala, karbono aztarna jaisteko, faktura jaisteko eta instalazio horietako zerbitzuak hobetzeko. "Proiektu honekin batera, Luis Ezeizan kalefakzio sistema hobetuko genuke, eguzki panel gehiago jarriko genituzke kiroldegian, eta sabaia konpondu; horrek itoginen arazoa kentzeko aukera emango digu...", adierazi zuen Josu Ezkurdiak, Eskoriatzako EAJko bozeramaileak.

Beste proiektu esanguratsu bat skate parke berria egitea izango litzateke, aisialdi eta kirol atalean. "Gaur egun, estazio zaharrean dugun skate parkea oso egoera txarrean dago, eta berria egiteko 80.000 euroko inbertsioa egingo dugu. Aretxabaletan dagoen antzekoa izango litzateke; hormigoizko estiloko materialarekin, mantentze aldetik hobea, eta parkearen bizitza luzeagoa egiteko. Horrekin batera, diru partida handi bat elizateetara bideratuko dugu. Hain zuzen ere, 175.000 eurokoa".

Auzotarrek egindako apaingarriekin josita

Intxaurtxuetako bizilagun talde batek sustatuta, Intxaurtxueta plaza, bereziki, eta baita auzuneko inguruak ere Gabonetako apaingarriekin dekoratu dituzte, beste urte batez. Lana koordinatzen aritu dira Ana Garzon, Ana Barbero eta Ana Garcia auzotarrak

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Eskoriatzako Udalak aurten ere Gabonetako apaingarrien lehia-keta antolatu du, baina aurten goa berrikuntza batekin, lehia-keta hori auzoen eta elizateen artean egingo delako; hau da, ez dute balkoiek, leihoek edo saltokiek parte hartuko, baizik eta Santa Ana, Olazar, San Pedro, Elorreta, Marin, Zarimutz eta abarretako kale edo auzoak. Hori horrela, hirugarren urtez jarraian, Intxaurtxueta auzoko bizilagun talde bat buru-belarri aritu da auzoa apaintzen, eta, gehienbat, botatzeko diren hondakinak erabilia osatu dituzte apaingarriak.



Auzoko apaintetan aritu diren Ana Garzon, Ana Isabel Barbero, Ana Garcia. I.B

Elementu gehiago jartzekotan

Aurreko edizioetan erabilitako apaingarriez gain, berriak ere egin dituzte, eta Jose Arana nagusien egoitzakoek auzoa apaintzeko propio egingo dituzten lanak ere erabiliko dituzte, besteak beste. "Okindegia, Olenzeroren eta Mari Domingiren etxea, oreinak, jaiotza... jarri ditugu Intxaurtxueta plazan, eta batez ere hiru lagun aritu garen arren prestaketa lanetan, auzoko Luisen eta Geroren laguntza handia izan dugu. E-mailarekin oso gustura geratu gara, baina oraindik gauza gehiago jartzeko

asmoa dugu", adierazi du Ana Garciak, Intxaurtxueta auzoko bizilagunak.

Material birziklatuekin

Egur asko erabili dute apaingarriak egiteko, eta kortxo plastikatzuz forratu dituzte etxolak, euria egiten duenean elementuak ez hondatzeko. "Plaza erdian jarri dugun zuhaitza burdinaz egin digu auzotar batek, eta, argiak ere jarri ditugu, iaz irabazi genuen lehiaketako diruarekin", adierazi du Ana Garzonek, Intxaurtxuetako auzotarrak.

Barrakak Santa Marinaran

Aurtengo Gabonetan, auzoetako eta elizateetako apaingarri lehia-ketaz batera, Eskoriatzan egongo den berrikuntzetako bat Santa Marina plazan egokitu duten barrakentzako eremua da. Talka-autoak eta ohe-elastikoak jarri dituzte eta urtarrilaren 9ra arte izango dira bertan. Horrekin batera, azken urteetan egon den moduan, txurro-denda ere egongo da, baina Santa Ana auzoan egon beharrean, barrakekin batera Santa Marina plazan egongo da.

Espainiako txapelduna

Ipurua Klubeko Haizeder Arguiz gimnasta eskoriatzarrak urrezko domina lortu zuen joan den asteburuan, Zaragozan jokaturako Espainiako kopan. Bakarkako modalitatean, kadete mailako txapelketa irabazi zuen, uztaiarekin egindako ariketarekin. Espainiakoaz gain, Euskadiko eta Gipuzkoako txapelketetan ere urrea lortu du denboraldi honetan.



ANGELA FRIXI

LEINTZ GATZAGA | 17



Gatzagarrak baserririk baserri kantuan. GOIENA

Gabon-kantak eskiniko dituzte herritarrek baserririk baserri

30 lagun inguru batuko dira abenduaren 24an Gatzagako baserrietara abestera joateko

Imanol Beloki Unamuno **GATZAGA** Leintz Gatzagako Udalak eta Gurel Guraso Elkarateak elkar-lanean antolatuta, abenduaren 24an, azken urteetako joerari eutsiz, baserririk baserri arituko dira gatzagarrak kantuan. Batez ere, egun horretan herriko nagusiak alaitzeko asmoz antolatu dute ekimena, eta, bide batez, parte hartzen dutenek ondo pasatzeko asmoz.

Goizean goiz hasita

Hilaren 24an, 08:45ean batuko dira Gabon kantak abestera joan nahi dutenak Gatzagako udale-

txe aurrean, eta autobusa hartuko dute baserririk baserri joateko. Aurreikusitako baserri guztietatik pasatzen direnean, berriz, herrigunera bueltatuko dira, eta herriko kaleetan zehar kantuan aritzeko tartea hartuko dute. "Gutxi gorabehera, 31 baserrietatik pasatuko gara abestera; *Olenzero, Kalera kalera, Horra Mari Domingi, Ole Olenzero...* kantak izango dira abestuko ditugunak, eta 30 lagun inguru arituko gara horretan", adierazi du Ainhoa Barandiaranek, Gatzagako Gurel Guraso Elkarteko kideak.



Leintz Gatzagako Udalaren egutegiaren azaleko argazkia. GATZAGAKO UDALA

Udalaren egutegiak banatuko dituzte

Urtero moduan, Gatzagako Udalak ateratako 2023ko egutegiak banatuko dituzte etxe etxe –150 ale inprimatu dituzte–; Olenzeroren eta Mari Domingiren laguntzarekin, horietako batzuk baserrietan banatuko dituzte.

AGINTALDI AMAIERAKO ELKARRIZKETAK

"Bazterrekoak zentroan jartzea izan da taldearen lehentasuna"

GORKA ARTOLA BERGARAKO ALKATEA

Urte amaieran bereziki "estu" badabil ere, "gutziz konprometitu" dago agintaldiko azken urte erdiari heltzeko; buru duen Udal Gobernuaren lana "emankorra" izan dela uste du

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA 2019ko ekaina ezker da alkate Gorka Artola (Bergara, 1989) eta beste lau urtez alkate izateko hautagaitza aurkeztu du. Azken hiru urte eta erdi hauek zailak bezain emankorrak izan direla dio: "Asko ikasi dut eta beti prest zegoen taldea izan dut ondoan. Eragileek eta herritarrek ere asko lagundu digute".

Nolako agintaldia izan da?

Arduraz kudeatutakoa eta emankorra. 2019an bergararrek emandako konfiantzak dakarren arduratik egin dugu lan, eta une oro izan dugu presente Udaletik herritarren beharrei erantzuteko baliabide guztiak jartzea.

Pandemiatik zer izan zen zailena?

Urria, askotan zalantza zkoa eta oso aldakorra zen informazioarekin erabaki asko hartu beharra. Perspektibarekin begiratu, une oso gogorrak izan ziren, baina uste dut erantzuten asmatu genuela. Nagusiei etxetara dei pertsonalizatuak, zaintza sarea, zaurgarrienei laguntzak eta ikasle guztiei telematikoki aritzeko baldintzak bermatu izana dira lan on horren adibideak. Egungo ikuspegiarekin, gauza batzuk ez genituen berdin egingo, seguru, baina herritarren inplikazioari esker erantzuten asmatu genuen. Pandemian sortutako kultura mahaiari esker, esaterako, erreferente izan ginen

kultura eskaintzan. Herritarren inplikazioarekin sortutako oinarri horrek fruituak eman ditu gerora ere, gainera.

Pandemiaz gain, beste krisi batzuk ere izan dira agintaldian zehar, edo?

Agintaldiaren lehen erdia asko baldintzatu zuen pandemiak eta bigarren zatia, berriz, prezioen gorakadak eta hornidura arazoek markatu dute. Egoera honek, etorkizun motzean izan ditzakeen eraginak aurreikustea zaila izateaz gain, Udalaren egunerokoan eragin handia du; zerbitzuen kostuak igotzea, hainbat proiektutarako inbertsioak aurreikusitakoa baino handiagoak izatea eta exekuzioak atzeratzea material faltagatik, adibidez.

Hasierako helburuak bete dituzue?

Udal Gobernura iritsi aurretik argi genuen Bergarak etorkizunera begirako ikuspegi estrategikoa behar zuela. Plan estrategikoaren garapenean jarri ginen lanean eta bertan ezarritako helburuei begira ekintza eta proiektu pila bat jarri dira martxan. *Bergara Izan, Bizi, Ekin* plana izan da gure iparrorratza, eta datu bat emango dizut: 2021eko otsailean aurkeztutako helburuak betetzeko 93 ekintza zehaztatetik 48 eginda daude eta 25 martxan; %78tik gora da hori. Kontuan izanda martxan ez daudenetakoa asko aurrekoen jarraipena direla esango nuke oso erritmo onean

goazela ezarritako helburuen betetze-mailan.

"Gobernantza eredu berri bat" aldarrikatu duzue. Baduzu "eredu berri horren" adibiderik ematerik?

Herritarrekin eta eragileekin batera kudeatzea jarri dugu mahai gainean. Arloz arlo interesdukin lantzen ditugu gaiak, eta, iritzi-jasotze hutsetik harago, benetako kobernantza bat da gure helburua. Erabakietan parte hartzeak konpromisoak eta ardurak hartzea dakar; erabaki-gunea irekitzen duzun unetik, prest egon behar dugu gustukoak ez diren erabakiak hartzeko. Ehundu dinamika da eredu berri horren adibide bat, eta horitik bideratutako proiektuak: energia komunitatea, azoka... Herritarrek eta eragileak parte aktibo dira proiektu horietan.

Zertan asmatu duzue?

Bazterrekoak erdigunera ekartzeko, proposamenaren sorreratik, lanketan eta azken emaitzan.

Eta zertan ez duzue asmatu?

"93 EKINTZA ZEHATZU GENITUEN; 48 EGINDA DAUDE ETA 25 BIDEAN"

"ADMINISTRAZIOA ARINTZEKO MUGAK AURKITU DITUGU"



Gorka Artola, San Martin plazan, atzean udaletxea duela. J.B.L.

Administrazioei egosten zaizkigun epe luzei eta erantzunik ezari buelta ematen. Barne funtzionamenduan eragin nahian ari gara, baina muga handiak topatzen ari gara eta, oraingoz, ez dugu helburu hori bete.

Proiektu zehatza goetara etorrira, ze arantza geratu zaizkizue?

Arantza bi geratu zaizkigu, bereziki: batetik, auzoekin eta auzoetako ordezkariarekin ez dugu asmatu agintaldi hasieran aldatu eta indartu genuen lan-dinamika mantentzen eta egonkortzen. Auzoek Udala urrun ikusten dute eta ahaleginak egin ditugun arren ez dugu asmatu egoera hori iraultzen; beste arantza da alde zaharrean egiteke dauden berritzei heldu ez izana. Bidekurutzetak, San Martin plazak eta Barrenkalek ez dute Bergarako alde monumentalak merezi duen itxura, baina aurrekontuek bere mugak dituzte eta, esan bezala, zentrotik harago dauden behar urgenteagoei heltzea lehenetsi dugu.

Bazterrekoak erdigunera ekartzeko saiatu zaretela diozue; adibiderik?

Eremuei dagokionez, helburu horren barruan kokatuko nituzke Basarten egindako konponketak, Zabalotegiko eskolako eremua, Labegarrietako esparrua eta Amillagako herri sarrera berriro urbanizatzea. Pertsonen dagokionez, Udaleko eta aisial-

diko zerbitzuetan aniztasun funtzionala aintzat hartzea, hirugarren adineko diagnostikoa bideratzea, etorkinen harrera lantzea eta Arin dependentzia arineko eguneko zentroa martxan jartzea aipatuko nituzke. Arloei erreparatuta, berdintasun politikan agintaldian zehar aurrekontua ia hirukoiztu egin dugu, ingurumena kontuan izanda lur erosketak publikoak lehen aldiz bideratu dugu, plan estrategikoko jasagarria garatu dugu, energia eta elikagai subiranotasunaren bidean jarri gara...

Azoka eta Arrizuriaga pila-pilean daude. Badago nobedaderik?

Bide onetik doaz. Eraikinetatik harago proiektuak dira, elkar-lana oinarri, beste eredu batzuk sustatzen dituztenak... Bestalde, ilusio berezia egiten digute ortu komunitarioek; elikadura subirananoan pauso txiki bat emateaz gain, lortu da komunitate bat sortzea. Giro berezia dago.

Abenduaren 21ean ireki zen Zubietakalea. Pozik?

Pozik, bizilagunekin egindako bilerak emandako emaitzekin eta orain arteko obrek. Zubietak berriuta ikustea gauza ederra da, 40 urteren ondoren. Masterrera ere itxura antzekoarekin ikusteko desiratzen gaude.

Agorrosin futbol zelai berriaren irekiera atzeratu egin da eta BKEren hasieraren eragin du; ze gertatu da?

Hornidura arazoek obra-publikoan ere ez dutela barkatzen eta aurreikusitakoa baino epe luzexegoa behar izan dela amaitzeko, administrazioak ez die-eta ihes egiten arazo globalei. Edonola ere, lehen fasea bukatzeko ukitu batzuk falta badira ere, zelai berria oso ondo geratu da eta aspaldiko eskaera zen bigarren zelaia erabilgarri dago dagoeneko. Kirol aisialdiaren ikuspegitik egindako beste inbertsio batzuk azpimarratu nahiko nituzke: Labegarrietako kiroldegia berri zen 2020an, rokodromo berria eta skate-parkea barne. Pumptracka egiteko ari gara eta eskola kirolean eta kirol egokituaren bueltan hainbat lanketa egin dira.

Larramendiko planta: ze irakurketa egiten duzu prozesuaz? Ze etorkizun ikusten diozu gaiari?

Bergararren ordezkariak aho batez onartutako Plan Orokorren kontra doan azpiegitura bat nola edo hala egin nahi izan dute gure herrian eta horretarako ez dute garbi jokatu. Gaia judizializatuta dago eta ematen du luze joko duela.

Badago aurrerabiderik Miguel Aituna zaharrarekin?

Eusko Jaurilaritzarekin harremanetan jarraitzen dugu, behingoz Udalaren eskuetan egon dadin. 2002tik datorren kontua da eta harrezkero administrazioen artean egondako gaizki-ultertuengatik oso korapilatuta egon da gaia; orain, badi-rudi bideratzen ari dela.

Mugikortasun Plana iragarri zenuen, baina ez dago; zergatik?

Aurreko agintaldian egin zen diagnostikoa zaharkituta dagoelako, kontzeptualki; diagnostikoa zaharkitu horretatik abiatuta, anbizio gutxiko ekintza-plan zirriborro bat dago mahai gainean, inoren espektatibak betetzen ez dituen. Ez du esan nahi ekintza-plan horretako proposamen batzuk aprobetxagarriak ez direnik, eta iluntzeetan egoiliarrik

"JUDIZIALIZATUTA DAGO LARRAMENDI; LUZE JOKO OMEN DU"

"OPOSIZIOAK EZ DU IZAN PROPOSAMENAK EGITEKO JARRERARIK"

etxera itzultzen direnean dagoen aparkatzeko zailtasuna identifikatuta dago; gainerako orduetan datuek ez dute aparkatzeko arazo berezirik erakusten. Etorkizuneko mugikortasun eredu ikuspegi jasangarri eta anbizioarekin garatzeko beharra nabarmena da. **Hileta zibiletarako gune estalia noiz egongo da erabilgarri?**

Errekalde jauregiko zalditegiak hileta zibiletara egokitzeko esleipen prozesua martxan jarri berri dago eta urte hasieran hasiko dira lanak. Ordenantza berriaren zirriborroa lantzen ari gara eta hileta zibilak egiteko aukera espazio ezberdinetara irekitzea da asmoa: eraikin publikoak, auzoetako frontoiak eta bestelako kanpo-eremuak.

Nolakoa izan da harremana, oro har, oposizioen taldeekin?

Gure aldetik beti egon da elkarlanerako borondatea. Tamalez, oposizioaren jarrera ez da proposamenak egitekoa izan, orokorrean. Egin izan dituzten apurretan, aurrekontuen inguruan, esaterako, akordioetarako gai izan gara; horren adibide da lehen hiru urteetan kontrako boto bakar bat gabe onartu ditugula aurrekontuak.

EAJk kudeaketarik eza leporatu dizue...

Kudeaketa gabe ez dago abiatu dugun ekimen eta proiektu sorta martxan jartzerik. Zer esanik ez, bitartean egunerokoari erantzun, udal barruan berrantolaketan lanak egin eta langile publikoen egonkortze prozesu konplexuak kudeatzen badira. Udalaren funtzionamendua eta barne koordinazioa hobetzeko prozesu sakon batean gaude murgilduta, eta emaitzak ikusten hasiak gaude.

Zergatik erabaki duzu beste lau urterako alkategai aurkeztea?

Ziklo politikoen zortzi urtekoak izan behar dutela esan ohi da, eta badu zentzua. Agintaldiaren hasieran talde politiko-teknikoa sortzeak denbora behar izaten du; egiteko moduak aldatzeak eta proiektuak landu eta ontzen denbora behar izaten dute, eta administrazioa ez da batere arina prozesuetan. Bigarren agintaldi batek herritarrekin eta eragileekin egiteko moduak finkatzeko eta lehen lau urteetan ezarritako helburuak garatzeko aukera emango digulakoan gaude.



2023rako udal aurrekonturako bozketa: EH Bildu (9) alde eta EAJ (5) kontra; PSE-EEko Alberto Alonso ez zen bilkuran egon. J.B.L.

Aurrekontu "errealistak eta anbizio handikoak"

EH Bilduren Udal Gobernuak 30.565.086 euroko aurrekontu proposamena aurkeztu zuen astelehenean, bost milioi euro inguruko inbertsio gaitasunarekin; EAJk kontra bozkatu zuen, besteak beste, azken akordiotik datorren konfiantza faltak eraginda

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA 30.565.086 euroko aurrekontua onartu du udalbatzak 2023rako. Udal Gobernuaren proposamenaren inbertsio gaitasuna mantentzea lortu da, nahiz eta, diotenez, egungo egoera politikoak eta ekonomikoak eragin zuzena izan duen gastu arruntetan. "Identifikatutako beharrak asko dira, baina, lehentasunak markatu eta buruan genituen proiektu batzuk alde batera lagata ere, daukagun errealtaterara egokituta, anbizio handiko proiektua aurkezten dugu", esan zuen Ongizate zinegotzi Aitor Arantxabalek. Harago ere joan zen EH Bilduko eledun Nagore Iñurategi: "Berdintasuna, ingurumena, auzoak, gizarte zerbitzuak... Guretzat inportanteak dira arloetan sailatu gara indarra jartzen, gainerakoak ahaztu barik. Oreka horretan ahalegindu gara anbizio handikoak diren aurrekontu errealistak aurkezten eta onartzen".

EAJ: "Konfiantza galdu dugu"

Azken bi urteetan abstenitu ostean, 2023rako proposamenaren aurka bozkatu zuen EAJk. Besteak beste, konfiantza falta izan da jeltzaleen ezezkoaren arrazoietakoa bat. "2022ko konpromisoetarako akordioaren exekuzio-maila ze eskasa izan den

ikusita konfiantza falta batetik genduzen 2023rako negoziatioetara. Horrez gain, ikusten genuen gure proposamenetako asko 2022an beteta egon beharko liratekeela [...]. Garrantzitsua da proiektua idatzita uztea; adibidez, dirulaguntza deialdi bat balego ez genuke Martokoa berritzeko proiekturik izango", dio EAJko bozeramaile Maite Agirrek.

EH Bildu: "Negoziaezina zen"

Hain zuzen ere, jeltzaleek joan den astean eman zuten euren proposamenaren berri. Martokoa kalea berriro urbanizatzea, Simon Arrieta plaza berritzea, Agorrosini begirako bigarren fasea idaztea eta subiranotasun energetikorako hiru proiektu garatzeko 3.100.000 euro bideratzea proposatzen zuten, besteak beste. EH Bilduren ustez, baina, negoziatiezina da proposamen hori. "Bost milioi euroko inbertsio gaitasuna dugu eta 3.100.000 euro baldintzatzen zituen proposamena da jaso duguna. Denbora askorik barik jaso dugu eta uste dugu ez dela serioa. Onartuz gero, nondik kendu beharko genuke? Boluko malda egonkortu barik geratuko ginateke? Masterreka berri barik? Oinarri teknikorik gabeko eskaerak jaso ditugu, negoziatiezina", dio Iñurategik.

Masterreka eta Arrizuriaga

Horrez gain, Iñurategik azpimarratu zuen 2019tik 2022ra Udalaren egoera ekonomikoa hobetzea lortu dutela; bereziki, zor bizia murriztuta. 2019an 5.855.941 eurokoa zen zorra eta 2022an 4.822.205 eurokoa da. Bestalde, 2023rako proiektu esanguratsuenen artean daude, besteak beste, Masterreka berritzera bideratutako 820.000.000 euroak eta Arrizuriaga kultura ekipamendu egiteko 510.000.000 euroak.

Bestalde, EH Bilduren iritziz, "lehentasunezkoak" diren arloetan izan diren gorakadak ere azpimarratu dituzte agintaldiko azken aurrekontuen onarpenean. Berdintasun arloan 159.920 eurokoa izango da aurrekontua, 2019an baino %173,08 handiagoa; gizarte zerbitzuetan 2.680.212 euroko aurrekontua, 2019an baino %42,84 handiagoa; garapen ekonomikoa 793.251 euroko aurrekontua; 2019an baino %48,64 handiagoa; kultura arlorako 1.412.098 euro, %72,44ko igoera 2019koarekiko; auzoetarako 861.000 euro, %78 handiagoa 2019an baino -aintzat hartu behar da horietatik 195.000 euro Boluko malda egonkortzeko direla eta, beraz, auzoetara zuzenean 2019an baino %38 gehiago bideratuko dela; eta ingurumenean 2019arekiko %25,9ko igoera izango da 2023an.

Protagonistak iristear eta ekintza mordoa gertu

Bailarako gainontzeko herrietan moduan, Olentzero eta Mari Domingi Bergarako hainbat txokotan izango dira abenduaren 24an. Gainera, kanturik ez da faltako; izan ere, Alaiberri taldea herriko kaleetan zehar arituko da abesten

Imanol Beloki Unamuno BERGARA
Gabonak ate joka direla, hitzordu ugari izango dituzte egunotan bergararrek disfrutatzen, Bergarako Udalak prestatutako egitarauarekin. Izan ere, ohiko ekitaldiak bueltan dira Gabonak girotzeko. Hori horrela, abenduaren 24an, zapatua, Olentzero eta Mari Domingi izango dira eguneko protagonista nagusiak bailara osoan, eta Bergaran ez ez dute hutsik egingo. Lehenengo geldialdia San Martin plazan egingo dute, eguerdi aldera, eta bertan ongietorria egingo diete; hala ere, herriko beste zenbait lekutan ere izango dira hurrei poztasuna eroaten eta, bide batez, txikien gutunak jasotzen.

Olentzero eta Mari Domingi
Zapatuan, 12:30ean, Olentzero eta Mari Domingi San Martin plazan izango dira, eta 18:00etan udaletxeko atarian haurren gutunak jasoko dituzte. Osintxura, berriz, 19:00etan iritsiko dira. Olentzero menditik jaitziko da orduan, eta harekin bat egingo dute umeez zubian. Angiozarren, aldiz, goizean goiz kantuan eginez hasiko dute eguna bertako bizilagunek. Hain zuzen ere, 08:45ean, *Olentzero* kantua abestuko dute auzotarrak, plazatik irtenda, eta Angiozar bailarako auzo guztietara joango dira, eta Olentzero 19:00etan iritsiko da Angiozar-ko plazara. Hitzordu horiekin guztiekin batera, egunean zehar herriko umeez kantuan egingo dute Bergarako kaleetan.

Alaiberriren Gabon kantua
Kantua jarrailuz, abenduaren 24an, Alaiberri taldea osatzen duten kideek kantu emanaldia egingo dute. 18:00etan hasita, Gabon kantuekin eta bestelakoekin osatutako errepertorioa eskainiko dute herriko kaleetan. Alai taldeak bere ibilbide luzeari amaiera eman zion

maiatzean egindako 50. urteurren ekitaldian, eta orain, talde horretako zenbait laguni kide berriak batu zaizkie, eta horrela sortu dute Alaiberri. Hala, ondoen dakitena demostratzera irtengo dira Bergarako kaleetara: kantatzera, hain zuzen ere.

Erakusleho lehiaketa

Olentzeroren eta Mari Domingiren etorreraz gain, eta izango diren kantuez gain, Gabon hauek ez du hutsik egin Bergarako erakusleho lehiaketak, beste urte batez. Gabonetarako apaindu dituzte erakuslehoak Bergarako merkatariek, eta sariak banatu dituzte.

Aurten, Gabonetako erakusleho lehiaketan hamar merkataritza establezimenduk hartu dute parte, eta irabazleak hautatu eta sariak banatu dituzte, Ainhua Lete alkateorde eta Sus-

OLENTZERO ETA MARI DOMINGI 12:30EAN IZANGO DIRA ZAPATUAN SAN MARTIN PLAZAN



Olentzero eta Mari Domingi Bergarara iritsi zirenekoa, iaz. GOIENA

tapen Ekonomikorako zinegotziaren eskutik. Sari guztiak Bergarako komertzioetan gatzeko bonuetan eman dira. Izeder Eskulanak izan da Gabonetako erakusleho lehiaketako irabazle nagusia. Banatutako lau sarien artetik bi jaso ditu. Lehen saria –ziurtagiria eta 350 euro– eta herritarren saria –ziurtagiria eta 50 euro–. Udal webgunearen bitartez 313 herritarrek eman dute botoa abenduaren 13a eta 18a bitartean, eta horietatik 124k hautatu dute Izederko erakuslehoia. Bigarren saria, berriz, Gorosti loradendak jaso du –ziurtagiria eta 300 euro– eta hirugarrena Mirari arropa-dendak –ziurtagiria eta 200 euro–. Epaimahaia Herritarren batzordeak, Bergarako merkatarien Bedelkar elkarteak, Beart Bergarako arte elkarteak eta Gipuzkoako Bazkondeak izendatutako pertsonak osatu dute, eta saridunak hautatzeko kontuan hartu dute publizitate-mezuaren imajinazioa, originaltasuna, argiztapena, berrikuntza eta eraginkortasuna, erakuslehoaren kalitatearekin batera.

Zubieta kalea zabaldu dute, ia urtebete itxita egon ostean

Hurrengo urratsa Masterrekako kaleko lanak egitea izango da; urtarrilaren 9an hasita aurreikusten dute

I.B. BERGARA

Ia urtebeteko lanen ondoren, Bergarako Zubieta kaleko eraberritze lanak amaitu eta eguaztenean, hilaren 21ean, ireki zuten. Datozen egunetan azken ukitu txikiak emateaz gain, Zubieta kaleko 2. eta 4. zenbakidun atarien inguruan egiten ari diren lanak ere amaituko dituzte. Fase horretako lanak amaituta, Bergarako Udalak eskerrak eman nahi dizkie Zubieta kaleko bizilagunei, lanek iraun duten bitartean izan duten jarrera onagatik.

Gabon sasoian lanak eten egingo dituzte, eta, hortaz, ardatz osoa berriro urbanizatzeko hirugarren fasea izango den Masterreka kaleko lanak urtarrilaren 9an hasiko dituzte. Obrek sei hilabete irautea dago aurreikusita eta Masterrekako obretan Zubietan baino zailtasun handiagoak izango dituztelakoan daude, kalearen estutasunagatik. Bi aldeetan daude etxeak, eta, kalea erabat ixtean, zirkulazioan izango duen eragina nabarmena izango dela aurreikusten dute.

OHARRAK

Elkarretaratzea, auzotarrek deituta

Auzotar talde batek protesta deitu du hilaren 24rako, udaletxe parean (18:30). Udalaren partetik "utzita" daudela diote.

San Joxepeko billar lehiaketa

Abenduaren 26an amaituko da txapelketan izena emateko epea, eta arratsalde jokatu dituzte partidua, astean zehar. Bazkideentzat soilik da lehiaketa, eta gutxieneko partaidetza ezarri dute aurtengo edizioan: zortzi lagun. Sariak urtarrilean banatuko dituzte, karta-lehiaketak egin ondoren.

Etxera bidea, gertu

Sarek deituta, abenduaren 24an plazan batuko dira, 13:00etan, kantuan egiteko; hilaren 30ean, berriz, abenduko azken ostirala izanda, 19:00etan manifestazioa egingo dute, plazan hasita, eta 22:00etan, berriz, kartzela zaharrean batuko dira.

Musika elektronikoa ekoizteko ikastaroa

Abenduaren 26rako, 18:00etan, musika elektronikoa ekoizteari buruzko tailer irekia antolatu dute. Saioa kartzela zaharrean egingo da.



Proiektuak · Koltxoak
 Horma-armairuak
 Altzariak neurrira
 Ateak · Eskailerak ·
 Leihoak · Tarimak ·
 Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROSZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com



Enpresa Registrada N°90/025

Gabonetan torneo pila, gaur futbolarekin hasita

Herriko hainbat taldek antolatuta kirol eskaintza zabala izango da Gabonetako oporraldian. Gaur, hilak 23, Alfredo Najeraren oroimenezko futbol torneoarekin (17:30, Agorrosin) eta Eskubaloi Egunaarekin ekingo diete hitzorduei

Xabier Urzelai BERGARA

Gabonetan egongo da izerdirik botako duenik; gaurtik hasita, gainera. Batetik, BKEko futbol sailekoek egunotan antolatuko dituzten bi torneoetako lehena jokatuko dute gaur, egubakoitza: Gabonetako Txapelketa, Alfredo Najera memoriale (Agorrosin, 17:30). Bergara, Aretxabaleta, Real eta Vasconia izango dira gaur zein baino zein gehiago.

Euskal Ligan liderak dira

Hain zuzen, Aretxabaletaren eta Bergararen kasuan, gaur jokatuko duten partidua Gabon ostean izango duten derbirako atariko ederra izango da. Izan ere, gazte mailako Euskal Liga txapelketa zorrotzean bi talde horiek lider daude, puntu kopuru berbera eskuratuta (32). Eta urtarilaren 15eko asteburuan elkarren kontra jokatuko dute, lehenengo itzuliko azken jardunaldia izango da. Hala, gaur, 17:30ean (Agorrosin) Bergarak eta Realak jokatuko dute; ordu berean, Ipintzan, Vasconia eta UDA izango dira aurrez aurre. Galtzen dutenek 18:30ean jokatuko dute hirugarren postuan sailkatzeko partidua, eta finala 19:30ean izango da. Sari banaketa, berriz, 20:30erako aurrekusten dute.

Emakumezko kadeteak 29an

Eta futbol sailekoek antolatuko duten beste torneo izango da emakumezkoen kadete mailako selekzioen txapelketa: Agorrosin, hilaren 29an. Eta hor, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako selekzioak izango dira zein baino zein gehiago (10:30).

Eskubaloi Eguna

BKEko eskubaloi sailekoak ere lagunartean batuko dira gaur, egubakoitza, Eskubaloi Eguna ospatzeko (19:00). Hala, taldeko beteranok –gizonezko zein emakumezko– hitzordua dute Labe-



Begararen eta Realaren arteko partiduen irudi bat, aurreko edizioan. GOIENA

garaietan, eta asmoa da familia giroan lagunarteko partidua jokatzea. "Etortzen den jendearen arabera partidu soilak edo hiruko torneoak antolatuko ditugu", adierazi dute klubetik. Hala, bertaratzeko asmoa daukatenei eskatu diete 18:30 aldera Labegaraietan egoteko.

Reyes Azkoitia txapelketa

Abenduaren 30ean, berriz, kategoriatxikiaren pilotarietako Reyes Azkoitia txapelketako finalak izango dituzte (16:00). Auritz Retolaza, Lierni Nin, Aner Etxaniz, Oinatz Gallastegi, Amets Agirre, Inar Olano, Josu Rincon, Aratz Alberdi, Aitor Contreras, Harkaitz Ilarduia, Josu Lazpiur eta Haritz Etxabe sailkatu dira finaletarako.

Hiruko saskibaloia 30ean

Saskibaloi sailekoek hilaren 30erako antolatu dute hiruko saskibaloi txapelketa, eta Labegaraietan jokatuko dute torneo. Alebin, benjamin, infantil eta kadete mailetakoz gaur zuzenduta dago. Hala, hilaren 26ra arte egongo da izen-ematea zabalik, Labegaraietan eta Ipintzan jarriko dituzten kutxetan.

Egitarau bete dute egunotarako kartzela zaharrean

Gabonetan egongo da kartzela zaharrean zerekin gozatu. Gaur, hilak 23, Ezpalak eta Rodeo taldeen emanaldia egongo da (22:00), eta bihar, hilak 24, Mojito Gauean Elvis Caino egongo da.

Abenduaren 26an, musika elektronikoa ekoizteko ikastaroa egingo dute (18:00), eta hilaren 28an egingo dute azken urteotan harrera oso ona izan duen Bergarako Bertso Txapelketa Nagusiko finala. Gai-jartzaile lanetan Txinbo ibiliko da eta bertsoetan izango dira Iraitz Artola, Jon Patxi Aiausti, Eñaitz Uriarte, Oxan Altuna, Enaitz Zabaleta, Unai Aranzabal, Gari Lopez de Munain –azken edizioko txapelduna–, Asier Txie eta Inigo Arzelus.

Hilaren 29rako auzolana egingo dute, 30ean Gure artera barruan DBQren kontzertua izango da (22:00) eta urteko azken gauean karaokea egingo dute. Urtarrilaren 5ean, azkenik, Errege pre-fest jaia egingo dute, 19:00etatik 22:00etara.

Urtarrilaren 6an esango dute zein den balkoi ederrena

Abian da Bolua auzoko balkoi eta leihoen Gabonetako apaingarrien lehiaketako bigarren edizioa. Abenduaren 10a zen bertan parte hartzeko azken eguna eta epaimahaikideak abenduaren 31ra arte egongo dira balkoi eta leihoez ederrena zein den aztertzen. Gero, lehiaketako irabazleen berri urtarrilaren 6an emango dute.

Batetik, lehiaketako barne epaimahaikoen ebazpena egongo da, baina, bestetik, herritarren botoei esker saria jasoko duenik ere egongo da. Izan ere, egunotan, ekimen horretan esku hartzen dabilzan komertzioetan herritarrek botoa eman ahal izango dute –pertsona bakoitzak boto bat–. Lehenengo saria Gabonetako saskia izango da, bigarrena lau lagunendako bazkaria Azpeitxi jatetxean, hirugarrena Eguzkiloreko bonu bat terapia naturalean, eta herritarren saria izango da estetika eta ile-apainketa produktu sorta Kizkurren eskutik.



DEBAGOIENEN GREMIOAK



ARROZTEGIAK

AZKARATE ARROZTEGIA
BERGARA / Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL
ARRASATE / Meatzerreka 30
Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87
e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA
ARRASATE
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA
Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

LOREZAINNTZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA
ARETXABALETA
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 - 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

Laster dira Elgetan Mari Domingi eta Olentzero

Musika Gelako ikasleek atzo egindako emanaldiarekin eman zitzaizen hasiera Gabonetako ekintzei herrian. Olentzeroren eta Mari Domingiren bisita espero dute gaur iluntzerako Elgetan. Aurretik, Herri Eskolatik ere pasako dira

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

30 neska-mutikotik gora aritu ziren atzo Espaloian egindako Gabonetako kontzertuan. Gaur, baserritar jantzi eta egun berezia izango dute Herri Eskolan. Nagusienek Gabonetako azoka egingo dute plazan, 09:30etik 11:00etara, eta, ondotik, Olentzeroren eta Mari Domingiren bisita izango dute ikastetxean, eta, horrekin batera, urteroko txistor-jana. Urtarrilaren 9ra arte iraungo duten Gabonetako oporrak etorriko dira gero.

Iluntzean beste hitzordu garrantzitsu bat dute herrian: 18:30ean jaitsiko dira berriz ere Intxortatik ikazkina eta Mari Domingi. Neska-mutikoen gutunak jasotzera joango dira Mendizaleen Plazara.

Gabon kantak eta mendi irteera

Gabon egunean kantu eskean irtengo dira hainbat lagun, 11:00etan Herri Eskolan elkartuta. Ohiko buelta egingo dute herriko hainbat txokotan Gabon kantuak eskainiz. Parte hartzera gonbidatu dituzte herritarrek. Batutako dirua LH-6ko ikasleen ikas bidaiarako izango da.

Eguberri eguneko proposamena Kantsatzeke Mendi Taldearen eskutik dator: Intxortara igotzeko gonbita egin dute.



Mari Domingi eta Olentzero, Elgetako San Roke kalean gora iaz. L.Z.L.

Urtezahar egunaren bueltakoak

Beheko kaleko jai batzordeak txokolate-jana eta bingo saioa antolatu ditu hilaren 30erako. 18:30ean elkartuko dira, Ozkarbi elkartearen. Adin guztietako herritarrendako ekintzak dira.

Bestetik, Urtezahar egunarekin jokatu da, aurten ere,

OLENTZERO ETA MARI DOMINGI 18:30 BUELTAN JAITSIKO DIRA INTXORTATIK GUTUNAK JASOTZERA

herri mailako lau eta erdiko binakako eskupilota txapelketako finala. 11:30ean hasiko da antolatu dituen hilaren 30erako. Gaur dira jokatzekoak finalerdietako partiduak, 18:00etan; Sergio Bouzas/Beñat Arabaolaza eta Haritz Gallas-tegi/Oxel Erostarbe bikoteak, alde batetik, eta Mikel Berte-xinaga/Unai Andres eta Andoni Elorza/Josu Horrillo bikoteak, bestetik.

Haur parkea, urtarrilean

Udalak Maala guraso elkartearekin elkarlanean antolatuta,

Askotariko ekintzak Gabonetan



Talde argazkia Eguberri egunean Intxortan. KANTSATZEKE

Hamarretakoa Intxortan Eguberri egunean 11:30ean da hitzordua Intxortan. Urteroko talde argazkia eta txistor-jana egingo dituzte, Kantsatzeke Mendi Taldeak antolatuta.



Udal Artxiboko argazkiekin egindako erakusketa jendez beteta. F. LARRAÑAGA

Argazki erakusketa Antolatzaileak oso pozik daude erakusketak herritarrengandik jasotako harrerarekin. Zabalik izango da gaur, barikua, 18:00etatik 20:00etara, eta bihar 11:00etatik 14:00etara.

Gabonetako haur parkea urtarrilaren 3an eta 4an izango da aurten, 16:00etatik 20:00etara, udal pilotalekuan. Sarrera 3 euro izango da.

Gaztetxoek pilotan egiteko aukera ere izango dute. Urtero-

ko hitzordua da eta aurten ere Errege Egunean izango da, 11:00 aldera hasita izen-ematearen arabera. Eskuz zein palaz jokatzeko aukera izango da. Izen-ematea zabalik da, hilaren 30era arte, Bolatokian.

Agintaldiko azken aurrekontua onartu berri du udalbatzak

Elgetako Udalak 1.801.318,54 euroko aurrekontua onartu du 2023rako; iazkoa baino %1,89 txikiagoa da

L.Z.L. ELGETA

EH Bilduko sei ordezkarien aldeko botoekin onartu zen udal aurrekontua martitzenean egindako osoko bilkuran. Oposizio-ko bi ordezkariak kontrako botoa eman zuten.

Aurrekontu "orekatua" dela azaldu zuen Iraitz Lazkano alkateak. Aparejadore ohiarekin lotutako kalte-ordaina ordaintzea amaitu izanak eta Foru Funtsetik jasotzea aurreikusten den diru kopurua ia 50.000 euro

Inbertsio nagusiak

- San Roke kaleko lanak 50.000 euro.
- Baserritarren batzordea 49.356,44 euro.
- Pumptrack-gunea 40.000 euro.
- Kiroldegiko proiektua 20.000 euro.
- Lursailen digitalizazioa 20.000 euro.
- Kiroldegiko inbertsioak 12.000 euro.
- Frontoiko sarreran lurra berritzeko 10.000 euro.
- Brigadako lan-tresnak 10.000 euro.
- Irisgarritasun lanak 10.000 euro.
- Eskolako inbertsioak 8.000 euro.
- Domingo Iturbe saila 6.000 euro.
- Gizarte Zerbitzuak 5.342,09 euro.

gehiago izateak ahalbidetu dute hori, besteak beste.

Oposizioarendako aurrekontua ez da erreala. "Ez da sinesgarria kiroldegia proiektua agintaldi amaieran proposatzea, energiaren alorrean ez da benetako esfortzurik egin, eta Udala mantentze enpresa hutsa da". Bestetik, San Roke kaleko lanak egin barik jarraitzea "adar jotzea" dela esan dute. Alkateak erantzun zien lanak Gipuzkoako Urak-ekin batera egin behar direla, eta elkarlanean ari direla.

**2023a
izan dadila
eraldaketarako
lur berria**

25 eraldaketan gara
emun

A woman with reddish-brown hair, wearing a grey halter-neck dress, is performing on stage. She is looking to her left with her right arm extended. In the foreground, the backs of several audience members' heads are visible, including a man in a red shirt and a man in a dark suit. The background is dark, suggesting a stage setting.

**Eskerrik asko urteotan gure
ondoan egon zareten guztioi**



Eztala futbol zelaiko argiteria berria. MAIDER ARREGI

LED teknologiadun argiteria martxan da

Eztala futbol zelaiko argiteria berri egin dute. Guztira, LED teknologia daramaten lau argiteria zutain jarri dituzte: bina futbol zelaiko albo bakoitzean. Energia aurrezteko argiteria sistema da eta erabiltzaileek argiteriaren maila erregulatzeko aukera dute

MAIDER ARREGI ANTZUOLA

Guztira, 15 metroko lau argiteria-poste jarri dituzte Eztala argiztatzeko: bina zelaiko albo banatan. Poste bakoitzak hamar proiektore ditu bere baitan. Energia aurrezteko, berriaz, LED sistema. Horrez gain, erabiltzaileek beharrezkoa duten energia erabiltzeko eta erregulatzeko aukera du sistemak.

Argiteria-koadroa ere berria da eta instalatutako potentzia 8,4 kilowattekoa da. Obra zibila ere egin dute: posteen hormigoizko oinarriak eta argiteria sisteman behar duen hoditeria, hain zuzen. Aurrekontuari dagokionez, instalazio elektrikoa 50.000 eurokoa da, obra zibila 35.000 eurokoa eta proiektua eta zuzendaritza 3.000 eurokoa.

Erabiltzaileak, gustura

"Bai, pozik gaude; oraindik argiteriari buruzko gauzatxo batzuk falta dira, baina esan beharra dago argiteria ona dela. Etengailu txiki bat jartzea komeni zaigu, epaileen aldagelan denok erraztasuna izateko, baina, oro har, gustura gaude", adierazi du Ibon Gezalaga AKE-ko presidentek.



Aketegi-Aitzurira egindako irteerako argazkia. ARROLA

Urteko azken zeharkaldia, Otzaurtetik Arantzazuraino

Arrolaren 50. urteurrenaren baitan, mendizaleek urteko azken mendi irteera egin dute, Aketegi-Aitzurira

Maidar Arregi ANTZUOLA

Arrolaren 50. urteurrenaren baitan, azken zeharkaldia egin dute arrolazaleek: Otzaurten hasi eta Aizkorriko mendilerroa jarraituta Urbiara joan dira. "Eguraldi aparta eta giro ezin hobea lagun izan dugu hamalau arrolazalek eta *Nilo* txakurrak. Otzaurten hasi, Aizkorriko ermitaraino igo eta Aketegi-Aitzuritik pasa ostean, Urbiara joan gara. Handik Arantzazura jaitsi gara. Aizkorri, Sancti Spiritu ermitatik igo gora, eta Aizkorri-Zegama maratoiaren marka horiak jarraitu ditugu.

Behatoki aparta da ibilbide osoa; izan ere, paisaia ikusgarriak eskaintzen ditu. Argazkia atera dugu Aketegi-Aitzurira gainean, Arrolak 1975eko abenduan jarraitako buzoiaurrean". Arrola Mendi taldeak bere ibilbidea laburtzeko hamabost minutuko bideoa egin du *-goiena.eus/antzuola* helbidean dago ikusgai-. Bideoa eskuratu nahi duena Arrolako kideekin jar daiteke harremanetan. Bestalde, gaur, egubakoitza, izango da azken aukera *Mendian gora* erakusketa bisitatzeko, Orlanen, 18:30etik 20:00etara.



ANTZUOLAKO UDALA

Pumptrack parkea, argiztatuta

Pumptrack parkeko erabiltzaileak gustura daude, iluntzen duenean ere euren zaletasunaz goza dezaketelako argiteriari esker. "Eztalan kendutako poste bat erabili da parkeko argiteria egiteko. Besteak bota egin ditugu", azaldu du Valen Moñux Hirigintza teknikariak. Argiteriaz gain, esertzeko egurrezko hiru banku ere jarri dituzte.



Hilerrira bidean dagoen pumptrack parkean argiteria jarri dute. M.A.

Horma irudi berria Kalegoien

Alaia Gaztelumendi artista oiartzuarrak *Maitasun izkutuak* izeneko murala egin du abendu hasieran, eta lanaren emaitza dagoeneko ikusgai dago Kalegoi eta Sagasti arteko etxe horman. "Etxean bezala sentiarazi nautzue; esku hotz baina bihotz bero amaitu dut murala", aitortu du oiartzuarrak bere Instagrameko kontuan: @alaia_art.



Olentzero eta Mari Domingi, Herriko Plazan, pandemia iritsi aurretik. IKER AIZKORBE

Olentzero eta Mari Domingi iristear dira

Gabon giro betean, aurten bai, normaltasuna izango da nagusi eta ilusioz eta magia jantzitako ospakizuna izango da protagonista. Bihar, Olentzero eta Mari Domingi jaitsiko dira San Josetik eta plazan Gabon mezua helaraziko dute

'Zu non, han DA!' ekimena Itzar liburu-dendara heldu da

Jakoba Errekondo agronomo usurbildarrak 'Ilargia eta landareak 2023 urteko lanen agenda' aurkeztu du

M.A. ANTZUOLA

Durango Azokaren *Zu non, han DA!* ekimenaren baitan, Jakoba Errekondok *Ilargia eta landareak 2023 urteko lanen agenda* aurkeztu du Itzar liburu-dendan. Ortuzainei teoria haien sailtara egokitzen laguntzeko asmoarekin sortu zen agenda. Hala, ilargiaren araberrako urte osoko lanak jasotzen ditu. Urtero gai bati heltzen dio, eta aurten, baratzean laguntzaile diren animaliak dira protagonista. Hogeitabat antzular joan ziren aurkezpena eta galderak egiteko aukera izan zuten. Besteak beste, ongarriak, landare-zorriak eta barazkien gaitzak zituzten berbagai. Landareen gaitzak sendatzeko tratamendurik ez dagoela eta prebentzioa dela gakoa azpimarratu zuen. Haziak bertakoak izatearen garrantziaz ere jardun



Errekondo, Itzar dendan. ENEIDA ITURBE

zuten. Gustura azaldu da Eneida Iturbe, Itzar liburu-dendako arduraduna: "Oso giro polita sortu da solasaldian eta asko ikasi dugu. Azoka Euskal Herriko liburu-dendetara horrela zabaltzea ideia bikaina da eta berriro hartuko nuke parte".

Maidar Arregi ANTZUOLA

Aurtengo Gabonek normaltasun kutsuarekin datoz eta bihar, oso bestelako irudiarekin, eta magia jaitsiko dira Olentzero eta Mari Domingi San Josetik antzuolarrak agurtzera, 18:30ean. Herriko Plazan egingo dute ekitaldi nagusia eta haurren gutunak ere jasoko dute.

Goizeko 11:00etan berriz, Pausoka Guraso Elkartearen eskutik, Gabon-kalejira egingo dute Errekalde auzotik abiatuta.

San Esteban krosa

Abenduaren 26an, martitzena, egingo da San Esteban krosa. Herri lasterketa horrek aurten ere jendetza batzea espero du. Izena egunean bertan eman daiteke –egunean bertan izena ematen duten umeek ez dute dominarik izango eta 12 urtetik gorakoak ez dira Ternua produktuen zozketan sartuko–. Hala, 17:30ean, aurrebenjaminak –LH-1 eta LH-2– abiatuko dira; 17:45ean, benjaminak (LH 3-4 –500 metro–) eta alebinak (LH 5-6 –1.000 metro–); 18:00etan, infantilak eta kadeteak (DBH-1-2-3-4 –2,5 km–) eta helduak (>16 urte –5 km–). Horrez gain,

Arrolaren logotipo berriaren aukeraketa egingo dute eta Arro-la elkarrekin panela jarriko du plazan. Boto gehien lortzen duena izango da Arrolaren logo berria. Eta gauean kontzertuak izango dira gaztetxean, 23:30ean hasita, Inguma, Lehen lerroa eta Xugux taldeekin.

Elkarretaratzea eta argazkia

Ez dot moztuko bizarra! taldeak antolatuta, *Etxera bidea gertu* lelopean gaur 19:00etan elkarretaratzea egingo da Zurrategin. Bihar, berriz, salda eta txorizoa banatuko dute 12:30ean, eta ondoren herriko argazkia aterako dute urtarrilaren 7an Bilbon egingo den manifestaziora joateko deia egiteko asmoz, Zurrategin. Abenduaren 30ean, aldiz, urteko azken elkarretaratzea egingo da 19:00etan ohi moduan, Zurrategin.

Haurrendako puzgarriak

Urtero lez, urtarrilaren 3an, astelehena, haurrendako puzgarriak jarriko dituzte eskolako patioan, goizean 11:30etik 13:30era bitartean eta arratsaldean 16:30etik 18:30era.

DEBAGOIENKO

PROFESIONAL LIBERALAK

<p>ABOKATUAK</p> <p>BERNARDINO MAIZTEGI BERGARA / Irizar 5 Tel.: 943 76 10 81</p> <p>BEGOÑA LASAGABASTER ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A Tel.: 943 79 98 86 blasaga@icagi.net</p> <p>RAFAEL ARANBURU BERGARA / Irizar 5 Tel.: 943 76 10 81</p>	<p>ETXE ADMINISTRAZIOAK</p> <p>BIARK ARKITEKTOAK ARRASATE Usaetxe plaza 1, behea Tel.: 943 79 80 33 www.biark.net</p> <p>LARRAITZ VALENCIA AZKARGORTA Arkitektoa eta tradesperson formazioa Tel.: 636 89 92 11 larraitz.arkiestudioa@gmail.com</p>
<p>AHOLKULARITZAK</p> <p>ANDRA MARI AHOLKULARITZA ARETXABALETAK Araba ibilbidea 20, behea Tel./Faxa: 943 79 29 26 andrama@arrakis.es</p> <p>ALBERDI ASESOREAK BERGARA / Matxiategi 36 Tel.: 943 76 90 83</p>	<p>ARKITEKTOAK</p> <p>URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK ARRASATE Pablo Uranga 3, behea Tel.: 943 79 51 25 uribesalgo@uribesalgo.es</p>

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.

"Aurrekontu sozialak" onartu ditu udalbatzak 2023rako, aho batez

Guztira, ia 21 milioi euroko aurrekontua izango du Oñatik datorren urtean, aurtengoa baino %11,2 handiagoa, eta inbertsioetara ia hiru milioi euro bideratuko dituzte

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Ohi bezala, urteko azken osoko bilkurako gai-zerrendan sartu dute aurten ere hurrengo urteko aurrekontua onartzeko puntua, eta urteko osoko bilkura luzeena izan ohi da abendukoa. Aurten, baina, ordu erdi baino ez zuen iraun gaiak, aurretik landuta eramanda zegoelako. Bigarren sorpresa bozketaren emaitza izan zen: aho batez onartu zuten, EH Bilduren eta EAJ-ren babesarekin. Agintaldi honetan lehenengo aldiz; joan den urtean jeltzaleek kontra bozka-

tu zuten eta aurreko bietan abstenitu egin ziren.

Egoera ekonomiko ona

Guztira, ia 21 milioi euro izango ditu Oñatik 2023an -20.945.070 euro-, aurten baino 2,1 milioi gehiago. Foru Funttsaren igoera, Ur Jauzien dibidenduak eta Next Generation funtsetik jasotako 532.000 euroko laguntza daude, besteak beste, igoera horren atzean. Inbertsioetara ia hiru milioi euro bideratuko dituzte eta aurrezki arrunt positiboa, berriz, 1,9 milioi eurokoa da,

"2008ko krisiaren aurreko kopuruen bueltakoa". Hori lortzea ez dela erraza aipatu zuen Udaleko kontu-hartzaileak, eta Oñatiko Udalak azken bi hamarkadetakoa eta datorren urteko aurrekontuan lortu duela azpimarratu: "Posible izan da departamentu guztiek gastu-euste lan handia egin dutelako beti". Udalaren zor bizia, berriz, 8,4 milioi eurokoa izango da.

Udal Gobernuan dagoen EH Bildu "pozik" agertu zen aurrekontu proposamenak oposizioaren baiezkoa jaso duelako, "orain

arte moduan lan eginda. Udalaren egoera ekonomikoaren gainean mezu larriak botatzen aritu da EAJ, baina ikusi da EH Bilduren Gobernu hau gai izan dela arduraz eta ondo kudeatzeko urte hauetan, eta oposizioaren oniritzia jaso du aurrekontuak. Kontu-hartzaileak esan duenez, Udalaren egoera ekonomikoa egonkorra izanik", zioen Xabier Igartuak, Ogasuneko batzordeburuak. Eta oposizio alderdia ere "pozik", euren "egindako proposamen asko" sartu dituelako Gobernu taldeak aurrekontuan. "Partida asko gure programan sartuta genituen eta ikusi genuen hizkuntza bera ari ginela erabiltzen. Azken finean, Oñati da gure herria eta bai euren bai gure, biok ikusten ditugu herriak dituen beharrak. Gustura gelditu gara", Anjel Biainen hitzak. Horrez gain, EAJk aurrekontuan txertatzeko egindako proposamenak eta ontzat emandako hiru ekarpen jasotzea ere izan dira arrazoiak oposizioak alde bozkatzeko: musika eskolan egin daitezkeen hobekuntza lanetarako, genero indarkeria gaztee-

kin lantzeko eta merkataritza biziberritzeko planerako. 90.000 euroko diru partida, guztira.

Datorren urtean, beraz, ia 21 milioi euro izango ditu Oñatiko Udalak herria kudeatzeko. Dirulaguntzetara joango da kopuru esanguratsu bat; %10erainoko igoera jaso du dirulaguntza orokorretarako, herriko beharrei aurre egiteko. "Aurrekontu sozialak dira, oro har, zerbitzu publikoak eta dirulaguntzak indartzea dakartenak, inbertsio mailari eutsiz", adierazi zuen alkateak, Izaro Elorzak; eta Oñati "dabilen herria" dela eta "dabilen herria izaten" jarraitu gura dutela gaineratu zuen.

Ia hiru milioi inbertsioetarako

Ia 21 milioi euroko aurrekontu horretako ia hiru milioi euro inbertsioetara bideratuko ditu Oñatiko Udalak 2023an: 2.944.413

%10ERAINOKO IGOERA JASO DU DIRULAGUNTZA OROKORRETARAKO, BEHARRENDAKO

Egingo diren proiektu eta inbertsioetako batzuk



Auzoen inbertsioetan eta auzoei emateko dirulaguntzetan %10 handituko da aurreko urteko kopurua. Landa-lur partzelen digitalizaziorako 80.000 euro gorde dituzte.



Partaidetzako aurrekontuen barruan, herritarrek egindako bederatzi proposamen heldu dira azkenera. 250.000 euro egongo dira 2023an horietarako.



Formakuntza eta ikasketa gelak egokituko dituzte Sancti Spiritus unibertsitatean. 290.000 euro bideratuko dituzte. Turismo Bulegoa hara pasako dute.



Pumptrack zirkuitua egiteko 100.000 euro gorde dituzte. Zubikoa kirodegiko kantxa urdineko teilatua konpontzeko proiekturako partida ere jaso dute.



Gaztetxoen buruhandi eta erraldoi konpartsa aztertze eta sortzeko urratsak egingo dituzte. Kultur sormenerako eta mugimendurako 94.500 euro egongo dira laguntzetan.



Irisgarritasun lanetarako 300.000 euro daude eta proiektuetarako eta hirigintzarako, 50.000. Aita Madinako, Kale Zaharreko eta Otadui zuhaitziko plana egingo dute.

euro. Aipatzekoen artean, 250.000 euro daude gordeta energia berriztagarrien inguruan eta trantsizio energetikoen sasoi honetan pausoak emateko. Arantzazuko Ama kaleko eremu proiektua Berezaio poligonoraino egiteko konpromisoa ere badago Hirigintza Departamentuan, baita emakume sortzaileen lana babesten jarraitzekoa, Emakumion Etxearen proiektuarekin aurrera egitea, enpresa berriak sortzen laguntzea eta etxez etxeko laguntza zerbitzurako partida 900.000 euroa igotzea ere.

Sailka, kirolekoa da diru gutxiago izango duena, nahiz eta Aloña Mendirendako eta Eskola Kirolerako laguntzak gehitu. Igoera handiena aisialdi hezitzaileak izango du: 100.000 euro daude jolasguneen diagnosi barruko esku-hartzetarako.

KIROL SAILAK DIRU GUTXIAGO IZANGO DU, BAINA LAGUNTZAK HANDIAGOAK IZANGO DIRA



Abenduaren 15ean egin zuten hileko ohiko osoko bilkura. O.E.G.

Departamentu bakoitzaren aurrekontua

Sailaren izena	2022	2023	ALDEA
Komunikazioa eta Parte-hartzea	513.450,00	539.265,00	%5,03
Gizarte Zerbitzuak	1.790.463,61	2.015.293,07	%12,56
Kirola	1.698.751,53	1.673.493,51€	-%1,49
Kultura	1.337.529,29	1.426.236,82€	%6,63
Barne Antolaketa	7.035.297,69	7.872.623,67€	%11,90
Sozioekonomia	562.896,97	596.114,15€	%5,90
Lurralde Antolaketa	4.658.881,53	5.289.801,29€	%13,54
Aisialdi Hezitzailea	1.233.501,04	1.532.242,59€	%24,22
GUZTIRA	18.830.771,66€	20.945.070,10€	%11,23

ITURRIA: OÑATIKO UDALA

Sei bertsolari onenak datoz urtarrilaren 5an Zubikoako frontoira

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusian sailkatu diren lehen sei bertsolariak datoz datorren hilean Oñatira. Gabonetako ohiko bertso saioan hartuko dute parte, Errege bezperakoan, eta Txinparta bertso eskolak jarritako gaiei erantzun beharko diete. Sarrerak gaur, egubakoitza, jarriko dituzte salgai, 10:30ean, Txokolateixan eta udal webgunean. Prezioa hamar euro da.

Bestalde, Ruper Ordorikak jo izan du Gabonetan gaztelekuan, eta aurten ere egingo du kontzertua; sarrerak, baina, agortuta daude. Horrez gain, azken urteetan bezala, gospel kontzertua ere egongo da, baita umeendako ikuskizunak ere. Ganbarako kantu eskolak, adibidez, *Ikusiezinak* musikala prestatu du urtarrilaren 7rako. Eta datorren astean bertan, hilak 28, *Aireportuan* lana aurkeztuko dute Potx eta Lotx pailazoek, familia osoarendako. Bi emanaldi egingo dituzte eta sarrerak salgai daude.

AUTLAN[®]
EMD

**Gabon jai
Zoriontsuak**
ETA DESIORIK ONENAK 2023
URTE BERRIRAKO

Laguntza eskatzen hasi da kirol boluntarioria

Oñatiko Udalak antolatuta, 'Kirol boluntarioria kolokan' mahai inguruak egin zuten eguaztenean Santa Anan. Askotariko errealitateak ezagutzera eman zituzten lau solaskidek, eta gaur egun herrian gai horren inguruan dagoen egoera aztertu zuten

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI
Hirugarren urtez antolatu ditu Oñatiko Udalak mahai inguruak kirolaren gainean, eta aurten, azkenaldian areagotzen ari den arazo bat ekarri nahi izan dute mahai gainera: kirol boluntarioria geroz eta jende gutxiago dagoela laguntzeko prest. "Hirugarren urtea da formatu hau erabiltzen duguna, eta orain arte jendeak begi onez hartu du proposamena", adierazi zuen Maite Antonek, Udaleko Kirol batzordeburua. Asteazkenekoak ere gaiari lotuta daudenak, hau da, urteetan boluntario izan diren eta izaten jarraitzen duten ikus-entzuleak batu zituen Santa Ana aretoan.

Aratz Losadak gidatutako mahai inguruan, herriko hainbat kirol taldeetako kideak izan ziren: Aitor Bian (eskubaloia saila), Iñaki Mugarza (txirrindularitza saila), Ainhoa Zumalde (tenis saila) eta Ainara Diaz de Guereñu (Abixaran). Eta bakoitzaren errealitatea zein den plazaratu zuten. Batzuetan beste batzuetan baino egoera zailagoa dagoela aitortu zuten lau solaskideek, baina guztiak bat etorri ziren: arazoa handitzen doa. "Txirrindularitzaren kasuan ez dugu hainbeste sumatu jende falta, baina badakigu beste toki batzuetan larri dabiltzala; argi dago azken urteetan geroz eta zailago dela jendea aurkitzea lanerako prest dagoena", aitortu zuen Iñaki Mugarzak.

Oñati, herri eredugarria

Mahai inguruko solaskide guztiak bat etorri ziren gauza batean: Oñati herri eredugarria izan dela eta izaten jarraitzen duela gaur egun kirol boluntarioria munduan. Era berean, beste herri batzuetan dagoen arazoa herrira ere gerturatzen ari dela argi zuten eta adibide bezala jarri zituzten eskubaloia saileko talde gorenak entrenatzaile barik hasi



Mahai inguruko kideak Santa Ana aretoan. IÑIGO BARRENA

"OÑATI EREDUGARRIA IZAN DA ETA DA BOLUNTARIOTZAN, BAINA JADA NABARI DUGU BEHERAKADA"

zuela denboraldia; txirrindularitzan Aloña Mendi dela bailarako eta inguruetako talde bakarra egitura sendoarekin; eta Aloña Mendi klubak hiru urte daramatzala presidentea bila.

Aratz Losada dinamizatzaile lanetan aritu zen, baina gertutik ezagutzen du boluntarioria munduan, urte askotan aritu baita kirol taldeetako hainbat sailetan laguntzen. "Oñati ereduak izan da kirol boluntarioria. Hor dago Aloña Mendi sailaren ereduak; horrelako egitura bat duen klub eta herri gutxi daude eta hori boluntarioria esker lortu da, baina azken urteetan egitura hori handitzen joan da eta jende falta dagoela sumatzen da".

Gizartea aldatzen ari da

Arazoaren arazoak zeintzuk izan daitezkeen ere eztabaidatu

zuten eta kirol boluntarioria falta gizartearen ispilua dela esan zuten; hau da, gizartea eta pertsonak aldatzen ari direla. "Lehen, komunitatean egiten genituen gauzak, eta, gaur egun, denoi gustatzen zaigu norberaren denbora librea nahi bezala antolatzea; eta gaur egun oso zaila da gizartearen edozein eremutan denbora luzerako konpromisoa hartzea", adierazi zuen Losadak. Mugarzak honako hau gaineratu zuen: "Gaur egun, askotan, lan hauek egitearen ordainetan zerbait eskatzeko ohitura hartzen ari da gizartea; askotan, eskatzen dena ekonomikoa izaten da. Musu-truk lan egitearena amaitzen ari da".

Hain justu, etorkizunari begira jarrita, erronka zail baten aurrean gaudela garbi utzi zuten denek. "Etorkizuna ez da erraza izango, baina, orain arte bezala, mugitzen den herri bat izaten jarraitu nahi badugu eta kirol egitura sendoa eduki nahi badugu, lan egin beharra dago", adierazi zuen Losadak, eta gaineratu zuen asteazkeneko mahai inguruan entzun eta esandakoek herritarrei "hausnartzeko" balio izango dietela.



NIRE USTEZ

JONMIKELA INTSAUSTI

'Maite zaituztet orainik'

Bazenekien euskal kantuek eta bertsozintzak azken mendeko euskararen historia islatzen dutela?

Gerra Handian *morts pour la patrie*, eskuara baizik etzakiten haiek abestu zuen Gorka Knorrek, eta Nafarroan euskararen galeraz Etxamendik eta Larralde: *Otsagabian zer dute, eskuara galdu, erdara sartu zaiote*. Nahigabetu zen Xalbador Ama Euskal Herriaz, *uzterat doalakotz betikotz mundua, bere seme alabez abandonatua eta gauza hoberik ezin zen asma euskaldunen frantsesesteko 77an*, agur esan zion-eta orduan Errobik telebistari –egun, Netflixi litzateke–. Euskaldun berriak ezin ahaztu: *Goizero, AEKn bezero zen langabe barakaldarrak mintzo zen Oskorri, ez al dakizu euskara dela euskaldun egiten gaituena? A! Inork ez zion esan Ruperri euskaldun izatea zein nekeza den*.

Luzatu, halere, Euskaraldia! Euskaraz arituz musu okerrik ikusiz gero, TELP ikasgai gisa 1967ko txapelketan Xalbadorrek esandakoekin erantzun: *Ezpazerate kontentua, errua ez daukat ez nik, txistuak jo dituzte bainan maite zaituztet orainik*.

GORA ETA BEHERA



Pintaketak Kale Zaharrean

"Kale Zaharreko horma horretako pintadak eta kartelak ikusita, Udalak arazo larria du aurre egiteko", dio irakurle batek argazkiarekin batera Goienara bidali duen iritzian.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Sakibaloiko eta areto futboleko Gabonetako txapelketak

Bi urte igaro dira pandemiaren ondorioz ez dela Gabonetako txapelketarik jokatu, baina aurten bueltan dira bai areto futboleko txapelketa zein sakibaloiko txapelketa. Areto futboleko izango da lehena jokatuko dena: abenduaren 26an eta 27an izango da eta atzo izan zen izena emateko azken eguna; partidu guztiak Zubikoa kirol-

degiko kantxa berdean jokatuko dira.

Azken urteetan indarra hartzen joan den beste txapelketa bat saskibaloiko sailak antolatuko kuadrillen artekoa izan da. Aurten, abenduaren 29an eta 30ean jokatuko da. Izena emateko, alonomendi.saskibaloia@gmail.com helbidera idatzi beharko da edo saskibaloiko saileko norbaitekin harremanetan jarri –gehienez, hogeitau hamasei egun; azken eguna 27a izango da eta 20 euro ordaindu beharko dira.



Realaren eta Osasunaren arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean



**Hartu
parte
zozketan!**

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Osasuna partida beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko tokirik onenetik. Abenduaren 31n, zapatua, 16:15ean.

Parte hartzeko azken eguna: abenduak 26



Eserlekuak
Premium gunean



Catering
zerbitzua



Aldageletako tunelean
jokalariak ikusteko aukera



Ikus-entzunezko
erabilerak



Atentzio eta zerbitzu
pertsonalizatua



353 metro karratuko
gunea

**Ezin errazagoa da
zozketan
parte hartzea!**



1.
Aplikazioa
deskargatu.

2.
Zozketak atalean sartu
eta parte hartu.

Gertu.
Zorte on!

**goiena[™]
kide**

Okm: batzen gaituen distantzia



www.goiena.eus/kideak



Bergarako Arragoa taldeak ireki zuen bosgarren eta azken saioa.



Islabat taldea izan zen gaueko bigarren taldea; post rock doinuak jo zituen.



Orhi taldeak bergarar asko erakarri zituen Seminarixora, eta aretoa ia bete egin zen.



Sindy Berbenas arrasatearrek energia handia transmititu zuten.

Hotzetik berora, goxotik bizira

Bosgarren eta azken saioa bukatuta, egin beharreko lanak eginda dituzte dagoeneko Danbaka lehiaketako hogeitazazpi parte-hartzaileek. Horietako hiruk soilik egin dute aurrera



ENEKO AZURMENDI

Eguraldiaren ildo beretik, hasiera hotza izan zuen Danbakaren bosgarren eta azken saioak; guztietatik hotzera, beharbada. Musikazaleei kosta egin zitzaien Bergarako Seminarixora abarrotan sartzea. Hala, zale gutxiak gozatu zuten Arragoaren folk doinu goxoz bustitako emanaldiaz. Historian atzera egin, eta folk tradizional landua plazaratu zuen bi familiaren artean osatutako Bergarako taldeak,

euskal kantuetatik hasi eta Peruko doinueta-raino, tartean zuzeneko dantza ere txertatuz. Paradoxikoa izan arren, doinu apurtzaileak izan ziren haienak, gaur egun gurean aukera gutxi baitago gitarra akorde lasai horiek biolin melodia itsasorrekina eta txeloaren sendotasunarekin uztartuta entzuteko.

Lehen emanaldia bukatzerako, Seminarixora berotzen hasia zen eta musikazaleak hasiak ziren apurka-apurka oholtzaren ingurura gerturatzen. Doinu lasai eta garbietatik melodia biziago eta orbanduagoetara bidaiatu

zuten musikazale horiek, Islabat taldearen eskutik. Post rockaren erritmoa ezarri zuten bergararrek eta elgoibartarrek, doinu ilunak bezain lokaztuak plazaratuz. Rockaren bestelako ikuspegi bat azaleratu zuten, sintetizatzailea ere baliatuz, ohiko gitarra, baxu eta bateria doinuen osagarri modura, eta klarinetaren afinazioarekin uztartzeko gai ere izan ziren.

Bigarrena ere, baretik gogorrera Lehen erdia bukatzean, arkupeetan zain zegoen DJ LP Woman (Lara Peman), hotzari aurre egin

eta musikazaleen aldakak mugiarazteko helburuarekin, doinu elektronikoak ardatz hartuta.

Bigarren erdia ere doinu eta erritmo bareekin abiarazi zuen Orhi taldeak. Pop eta rock doinuak nahastu zituen bergararrek eta abeslari azpeitiarrak osatutako taldeak, hori baita haien proposamenaren oinarria, ahots dotore eta ondo afinatuarekin. Ordurako, asko ziren Seminarixora betetzen zuten zaleak. Edozelan ere, ez zuten amestutako hasiera eduki; izan ere, soinuarekin hainbat arazo izan zituzten eta distortsio puntu bat ere antzeman zen lehen abestietan. Gerora, kontzertuak aurrera egin ahala, emanaldiaren mailak gora egin zuen; zaleen gertutasuna ere nabaria izan zen momentu oro, eta MICE taldearen *Ausardiarik* ez abestiarekin borobildu zuten, besteak beste, euren saioa.

HASIERA HOTZA IZAN ZUEN BOSGARREN ETA AZKEN SAIOAK, BAINA GIROA BEROTU ZEN BUKAERARAKO

Sindy Berbenas arrasatearrek izan ziren Danbakaren bosgarren edizioan euren proposamena aurkeztu zuten azkenak. Halaber, azken saioan publikoa gehien mugiarazi zutenak ere izan ziren, euren erritmo azeleratuei eta transmititu zuten energia esker. Haiek ere arazo teknikoak izan zituzten, gitarretako bat ez baitzen ondo entzuten. Edozelan ere, ohikoa duten legez, kuraia handiarekin ezarri zituzten punk, oi! eta metal doinu biziak, eta, publikoaren zati batekin, behintzat, modu zuzenean konektatu zuten.

Beste gehienak bezala, bosgarren eta azken saioa askotarikoa izan zen, doinu, melodia eta akorde nahasketa nabarmenarekin. Horrek agerian utzi Debagoienean dagoen uzta musikaren zabalera zenbaterainokoa den. Epaimahaikideek ez dute batere lan erraza izan.

BI TALDEK DOINU LASIAK PLAZARATU ZITUZTEN ETA BESTE BIEK, DOINU BIZI ETA GOGORRAGOAK



DJ LP Womanek girotu zuen Seminarixoko kanpoaldean.



Sanprubusak ohiko zerbitzua eman zuen San Martin plazan.



Hasiera hotza izan bazen ere, gauak aurrera egin ahala, musikazale ugari batu ziren. ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO



IMANOL SORIANO

Arragoa | Bergara

Goi mailako folk erakustaldia egin zuten; tamalez, gutxitan ikusten diren horietakoa. Gitarra, biolin eta txelo doinuak ezin hobeto uztartu zituzten, perkusioaren laguntza paregabearekin. Musikari guztien talentua ez dago zalantzan jartzerik.



IMANOL SORIANO

Orhi | Bergara

Pop rock lasaiaren adibide dira eta teklatuaren doinuek balio erantsia ematen diete gitarraren akordeei eta ahots afinatu eta landuari. Agian, ez zuten euren mailarik onena eman, baina, talde moduan hasiberriak izanik, badute bidea egiten jarraitzeko dohainik.



IMANOL SORIANO

Islabat | Bergara

Musika ilunaren esperimazio ausarta egin zuten. Post rockaren barrunbeetatik sortutako musika taldea da, ezberdina, eta, ohiko moldeak hautsiz, bestelako doinuak islatzen saiatzen dena, sintetizatzaileekin eta klarinetearekin ere ausardiaz jokatu.



IMANOL SORIANO

Sindy Berbenas | Arrasate

laz bete ziren 25 urte Arrasateko taldea sortu zenetik eta oraindik ere sasoi betean daudela erakutsi zuten, energiaguz betetik eta publikoarekin konektatuz. Punk eta oi! doinuei metal ukitua ematen diete gitarren punteatze azkarrek, bateriaren golpe bizien eritmorra.

Aretoan jasotako iritziak

MADDI ARZELUS IKUS-ENTZULEA

"Sekulako giroa egon da gaurko kontzertuetan ere eta eskertzen da Bergaran halakoak antolatzea. Danbaka musika lehiaketa ekimen polita da Debagoieneko musikariei ikusgarritasuna emateko eta oso gozagarria zaleentzako".

LARA PEMAN DJ LP WOMAN

"Pixka bat motza egin zait saioa, baina oso gustura jardun dut; lehenengo zatian musika lasaiagoa jarri dut eta bigarrenean dantzagarriagoa. Kontraste handia izan da, orokorrean, kontzertuetan, estiloei begiratuta, baina oreka eta giro ona sortu da".

MARTIN LARRAÑAGA IKUS-ENTZULEA

"Asko eskertzen da egubakoitzetan herrian halako ekitaldiak egotea. Orokorrean talde guztiak ikusteko gogoz etorri gara, eta, bide batez, lagunak animatzera. Chill out gunea ere asko gustatu zaigu; hotz apur egiten zuten, baina giroa aparta!".

IKERNE ITURBE IKUS-ENTZULEA

"Lagun batzuek jotzen zuten gaur eta hala etorri gara. Aurretik ere ezagutzen nuen Danbaka, baina aspaldi etorri barik nengoen eta sekulako muntaia iruditu zait. Gauza interesgarria da gure eskualderako, eta Bergararako puntazoa!".

FINALA

Urtarrilak 13, egubakoitza, 21:30. Bergarako Seminarixoa.

- Aiert
- Arragoa
- The Clayton
- Gonbidatua: DJ Gela

Publikoaren Sariaren sailkapena

- AIERT**
Oñati
Botoen %15,93
- SUKENA**
Oñati
Botoen %13,92
- ILUMINATIZZ**
Arebakaleta-Otxandio
Botoen %11,34
- KIIMAK**
Antzuola
Botoen %10,92
- KTARSIA**
Bergara
Botoen %6,59
- SINDY BERBENAS**
Arrasate
Botoen %6,07
- THE CLAYTON**
Aramaiio
Botoen %5,27
- 112**
Arrasate
Botoen %5,27
- ORHI**
Bergara
Botoen %5,27
- BROKEN LEGACY**
Oñati
Botoen %4,80
- ERROMINTXELAK**
Arrasate-Bergara
Botoen %3,96
- JASAN**
Arebakaleta-Eskoriatza
Botoen %1,90
- ETXEPE**
Arrasate
Botoen %1,90
- INGUMA**
Oñati-Bergara
Botoen %1,74
- LEMAK**
Bergara-Antzuola
Botoen %1,53
- ARRAGOIA**
Bergara
Botoen %1,48
- LETAGIN**
Oñati
Botoen %1,05
- BALARRASA**
Aramaiio-Eskoriatza
Botoen %0,53
- EYHARTS**
Bergara
Botoen %0,32
- ISLABAT**
Bergara-Elgoibar
Botoen %0,21

BOTOA EMATEKO

Danbaka.eus webgunean edo Goiena.eus webgunearen Danbaka izeneko kanalean eman daiteke botoa, **2023ko urtarrilaren 10era bitartean.**

Aniztasunaren izenean, Aiert, Arragoa eta The Clayton finalera

Bost epaimahaikideek "merezimendu osoz" aukeratu dituzte urtarilaren 13ko finaleko protagonistak

Hasier Larrea BERGARA

Kristina Markinak, Julen Narbaizak, Aitor Aldanondok, Nerea Loron *La Furia*-k eta Iñigo Ugartek osatutako epaimahaia erabaki du jada Danbakako finalean ze hiru artista edo talde joko duten. Ezeren aurretik, aho batez onartu dute lehiaketaren aurreko aldiekin alderatuta asko aldatu dela aukera: "Rockaz harago doazen proposamen ezberdinak jaso ditugu, lehen entzundietatik hasita, eta frogatu dugu gero eta neska gehiago ari direla musikagintza jorratzen, baita adinaren aldetik aberastan handia dagoela ere; finalean aniztasun hori islatzea iruditu zaigu justuena".

Ugartek adierazi du "zaila" egin zaiela hiru finalistak aukeratzeko, baina "polita" izan dela prozesua: "Epaileok gure iritzia plazaratu dugu eta elkarri entzun diogu, aberasgarria izan da, eta une oro argi izan dugu Danbako erakusleho bat dela".

Arragoak, folk "dinamikoa"

Joan den astean Bergarako bi familiaz osatutako taldeak eskainitako ordu erdiak "askorako" eman zuela azaldu du Narbaizak: "Abestien aukeraketa koloretsuarekin asmatu egin dute, emanaldi dinamikoa izan baita. Alabek konposatutako kantuak oso onak iruditu zaizkigu; nabari da kide guztiek jaso dutela musika-heziketa".

Aiert, "garai hauen isla"

Danbakak musikari hasiberriei bultzada emateko helburua ere baduela aintzat hartuta, egokia iruditu zaie Aiert oñatiarra hautatzea finalerako. "Aniztasunari egin nahi genion tokia, eta Aiertek primeran islatzen du hori; proposamen desberdina eta apurtzailea dauka, eta niri, pertsonalki, zirrara eragin dit", dio Markinak. Gomendio bezala, hitzordu handian "kantu propio gehiago jotzea" eskertuko dutela gehitu du.

The Clayton, "erraietatik"

Boskote aramaioarra lehen emanaldian igo zen Seminarixoko



Aiert bakarlaria. BITTOR MUNARRI



Arragoako bi kide. IMANOL SORIANO



The Clayton, gozatzen. KOLDO EIZMENDI

oholtzara, eta, Aldanondoren esanetan, "lehen unetik argi" izan zuten azken faserako sailkatuko zirela: "Nire ustez, zuzenkorik onena izan da; indartsua, ondo jotakoa eta teknikoki landua. Eszenatokia bete dute zuzartarako rock-and-rolla gitarra garbiekin uztartuta; barrutik irteten zaiela ikusten zen". Puntu negatibo bezala "gehiegi antzeztzen" dutela zehaztu du, "baina gehiegikeria ere bada rock-and-rollaren ezaugarria".

Bostek espero dute azken finala beste festa handi bat izatea, baina, horren gainetik: "Danbakak jarraitu dezala existitzen, hori gure bailaran kultura mugitzen ari den adierazle indartsua izango delako".



Musikaleko bi protagonista. X. URZELAI

Bergaran ere egingo dute 'Bretxa' musikala

Martxoaren 4an udal pilotalekuan antzeztuko dute obra; sarrerak salgai daude herenegundik

H.L. BERGARA

Jakina zen Bergara Antzerki Musikalak (BAM!) Bergarako Musika Eskolarekin batera ekoiztutako *Bretxa* musikala Donostiako Victoria Eugenia antzokian estreinatuko zutela, urtarilaren 13an, 14an eta 15ean. Bada, sarrera guztiak agortu dira dagoeneko. "Gure aurreikuspen guztiak gainditu ditugu, ez genuen halako erantzunik espero. Jende pilo geratu da sarrera erosi ezinik", dio zuzendari eszeniko Valen Moñuxek. Bergarako Udalak, gainera, autobusa antolatu du emanaldi guztietarako, eta *seminarixoa.eus* atarian eta Seminarixoko leihatilan eskura daitezke bidaia-txartelak.

Hain justu, bi toki horietan daude salgai, hilaren 21a ezker, Bergarako udal pilotalekuko emanaldirako sarrera, 20 eta 25 euroko prezioan. Musikalaren egile eta zuzendari Oihan Vegak martxoaren 4ko hitzordu horretara joateko gonbidapena egin du: "Gabon garaietarako operari proposa da musikalerako sarrerak erregalatzea. Beti asmatuko duzu operari horrekin eta herriko kultura sustatuko duzu aldi berean. Emanaldi berezia izango da musikaleko partaideontzat, gure jendearen aurrean eskainiko dugu eta".

Goienakideen txokoa

ABENDUKO SARIAK



TD Telebista (32')

Parte hartzeko sariaren izena: telebista



Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz



Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harremandenda.com

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE

"sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte hartzaileen artean egingo da zozketa. Irabazlearen izena 2023.01.15 baino lehen jakinaraziko dugu. Zozketaren emaitza goiena.eus webgunean ikusgai izango da. Zozketaren emaitza ikusgai izango da. Eskatutako sariak ez dira inongo sariak. Hasi zozketaren emaitza ikusgai. goienakide@goiena.eus

Realaren eta Osasunaren arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reale-Osasuna partida beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeraturako beste lagun batek. Reale Arena futbol zelaiko tokirik onenetik. Abenduaren 31n, zapatua, 16-15ean. Parte hartzeko azken eguna: abenduak 26



Irabazi bi lagunendako otordua

TARTUFO JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkaria Otorduan atala eta hartu parte! Parte hartzeko azken eguna: abenduak 27



943 25 05 05



goienakide@goiena.eus



"Goiena app"-a / zozketa atalean.



GOIENAKIDE Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



GOIENAKIDE KUOTA: 65€
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

goiena kide

Okm: batzen gaituen distantzia.



Joan den astean aurkeztu zuten txapelketa, Ibarako kirol instalazioetan. I. BELOKI

Atletico Lince, Reala eta Debagoiena hirukoan

FUTBOLA Abenduaren 30ean jokatu dute Emakumezkoen Gabonetako Txapelketa, eta Debagoiengan selekzio indartsua osatu dute; Valladolideko eta txuri-urdinei aurre egitea da asmoa. "Eta sorpresak egon daitezke", aurreratu dute antolatzaileek

Xabier Urzelai ARRASATE

Arizmendik antolatzen duen Emakumezkoen Gabonetako Txapelketa 17 urte beteko ditu aurten, eta, ia adinez nagusi egin den honetan, bilakaera ezin hobea izan du hitzorduak. "Lehenengo edizioetan gu ibiltzen ginen Gipuzkoako klubentzatetik egun horietan neskak gurea futboleko jokatzera etortzeko

eskatzen, animatzen. Eta orain, aldiz, ezezkoak ematen ibili behar izaten dugu, dei mordoak jasotzen dugulako baina guk ere muga batzuk ditugulako talde kopuruari dagokionez. Horrek erakusten du txapelketa urte hauetan hartu duen izen ona", adierazi du Urtzi Amianok. Hain zuzen, Valladolideko Atletico Lince taldea izango da abendua-

ren 30ean senior mailako hiruko torneoan egongo den taldeetako bat: "Eurak jarri ziren gurekin kontaktuan, txapelketaren berri izan zutela eta ikusi zutela zenbat urtetan antolatu izan den. Eta baietz esan diegu"; Debagoieneko selekzioarekin eta Realeko hirugarren taldearekin -Reala C- batera lehiatuko dira Ibaran (10:30).

Eta torneo horretara begira Debagoieneko selekzioak ere ordezkari izango du, urtero moduan: "Gainera, esanguratsua da bertako jokalariek geroago eta klub gehiagotan ditugula. Eta adi egon, hilaren 30ean sorpresak egon daitezke eta", dio Amianok. Hain zuzen, harekin batera selekzioa osatzeko lanean egon dira Andoni Ezkurra, Amaia San Torcuato eta Nerea Uriarte. Partidu horretarako, gainera, Debagoieneko selekzioak elastikoa estreinatuko du, torneo-rako propio egin dutena.

Zenbateko esanguratsua

Hiruko torneo abenduaren 30ean jokatu dute, baina bezperan, hilaren 29an, kategoriatxiki-tako neska mordoak batuko dira Ibaran, zortziko futboleko norgehiagokak izango dira eta: "Labur esanda, guztira, 400 neska batuko dira, 24 taldetan banatuta. Eta, hain zuzen, 78 partidu egongo dira ikusgai. Datu esanguratsua dira".

Debagoien mailako ekimena izanda, bailarako talde guztiek hartuko dute parte; hala ere, horiek ez ezik, bailaratik kanpo beste talde batzuk ere etorriko dira: GoierriGorri, Tolosa, Lagunonak, Anaitasuna... Eta alebin, infantil eta kadete mailetakoei norgehiagokak izango dira.

"DEBAGOIENKO SELEKZIOAK EZUSTEA EMAN DEZAKE HIRUKO TORNEOAN, TALDE OSOA DUGU"



URTZI AMIANO
ANTOLAKETAKO
KIDEA

Debagoieneko selekzioaren zerrenda:

Debagoieneko selekzioa osatzeko, hautatzaileek lau klubetan banatuta dauden jokalariek izan dituzte kontutan. Eibarko, Elorriko, Leintz Arizmendi Aloña Mendiko eta Bergarako klubetatik aukeratu dute 19 jokalariko zerrenda. Zoritxarrez, txapelketa aurretik ez dute aukerarik izan elkarrekin entrenamendu saio bat egin eta elkar hobeto ezagutzeko.

Atezainak

- Enara Zumarraga (Eibar).
- Olatz Alberdi (Elorrio).

Astelariak

- Oihane Bengoa (Eibar).
- Eneritz Gonzalez (Elor.).
- Miriam Agirre (LAA).
- Iraitz Zabala (LAA).
- Maialen Txintxurreta (Leintz Arizmendi Aloña).

Erdilariak

- Naroa Altuna (Eibar).
- Maialen Altuna (Aretxabaleta).
- Nahia Etxarri (Bergara).
- Maitane Etxabarri (Ber.).
- Miren Astudillo (LAA).
- Malen Uribesalgo (LAA).
- Naroa Moiu (LAA).

Aurrelariak

- Cora Hickey (Eibar).
- Naroa Urreta (Eibar).
- Mainer Jorge (Elorrio).
- Nora Linazisoro (Berg.).

Bost San Silvestre lasterketa aukeran urtea agurtzeko

ATLETISMOA Pandemia gaindituta, orain arte egiten zituzten guztiak errekupearatu dituzte hilaren 31rako

X.U. ARRASATE

Abenduaren 31n, debagoiendar mordoak agurtuko du urtea korrika eginez. Izan ere, azken urteotako zailtasun eta gorabeherak gaindituta, San Silvestre lasterketako antolatzaileek

erabateko normaltasunarekin antolatu ahal izango dituzte lasterketak, eta pandemia aurreko guztiak errekupearatu dituzte. Hala, goizean egingo dituzte Musakolako San Silvestre proba (12:00) eta Bergaran egin-

go dutena, trail formatuduna (12:00). Bergarako dortsalak agortuta daude jada, baina Musakolan goizean bertan eman ahal izango da izena, Legarre plazan, eta gaztetxoendako lasterketa ere antolatuko dute (10:00).

Arratsaldean hiru

